



## Azokari begira

Irurtzunik Bertako Ganadu Azoka hartuko du igandean / 2-3

**Dinabide irabazi  
asmorik gabeko  
elkarte bihurtu da.  
Bazkide egiteko  
aukera zabaldu du / 5**

**Ekoduktu batek  
Aralar eta Urbasa-  
Andia mendietako  
faunaren harremana  
erraztuko du / 7**

**AHTren Altsasu  
arteko trazatuaren  
plangintzan eta  
lanetan aurrera  
egitea adostu dute / 14**

**Larunbatean  
Ergoienako Bira, eta  
igandean Uharte  
Arakil-Beriain Km  
Bertikala / 16**

**Izar handiak  
93. Altsasuko Proban.  
Pablo Urtasunek  
Vueltaren balorazio  
ona egin du / 17-19**

**Pikuxarren José Luis  
Cordónen eta Nerea  
Zubikoaren 'Nueve'  
erakusketa mustu  
dute / 22-23**

## Sakana Itsasi euskaltegia

Euskara ikasteko bidelagun onena

EUSKARA IKASTAROAK Altsasun, Irurtzunen, Etxarri Aranatzan...  
Izena emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, beheko, ALTSASU  
sakana@aek.eus  
948 468 258



DIRULAGUNTZAK

Sakanako Mankomunitatea, hainbat udal  
eta Nafarroako Gobernua: BEKAK

**aek**  
euskara praktikoa



Ihabarko artzain Naiara Calderon Aiestaran. ARTXIBOA

# "Garilean zegoen ur faltak ardiak jaistera behartu gintuen"

**NAIARA CALDERON AIESTARAN ARTZAINA**

Ihabarko gaztandegiak artaldea udan Andian larratzen den tokiko izena hartu du egiten dituen gaztak merkaturatzeko: Arbeltz

**Alfredo Alvaro Igoa** IHABAR

Bederatzigarren edizioa du aurtan Arakilgo eta Irurtzungo Bertako Ganadu Azokak. Antolatzailuek hasierako ideiarri eusten diote: laborantza eta elikadura

eredu iraunkorraren alde egitea. Horregatik, Irurtzungo plazan 15 nekazari eta abeltzainek kalitatezko eta ekoizpen agroekologikoko produktuak salgai izanzen dituzte beraien salmahaietan.

Nahi dutenek turismo informazio postuan txartela hartu eta eguerdiko ardi gazta dastaketa eta herri txapelketan parte hartzeko aukera izanen dute. Dozena bat artisau ere izanen dira.

Euskal Herriko animalia arrazen buruak ikusgai izanen dira ere.

Zehazki ardi buru beltzez osatutako artaldea du. "Hasi ginenean beltzenganako joera genuen, horrela hasi eta hala segitu dugu", azaldu du.

**Artaldeak zer moduz pasa du uda?**

Aurtengo uda oso ezohikoa izan da. Normalean guk ardiak jezteaz bukatzen dugunean, antzutzen ditugunean, mendira eramaten ditugu. Baina aurten mendira eramateko garaia iristean, mendia ez zegoen baldintza onetan.

**Mendira eramatea apirila, maiatza hasieran izaten da, ezta?**

Guk antzuak dauden ardiak mendiak zabaldu orduko, apirilaren 15ean, igo egiten ditugu. Baina ardiak jezteaz garila akabera aldera bukatzen dugu, eta orduan artalde osoa igotzen dugu. Normalean Andian lastaila erdira arte izaten dugu artaldea.

**Hori urte normal batean.**

Aurten apirilean antzuak igo genituen. Baina garila akaberan mendia oso-oso gaizki jarri zen. Batez ere arazorik handiena ur falta izan zen. Ardi haiek herri-jaistera behartuta egon ginen. Eta garai hartan igo beharko genituen ardiak ezin izan genituen igo.

**Nola moldatu zarete? Gure moduan, ardiek ere egunero jaten dute.**

Azkenean ardiek jan egin behar dute, bai edo bai. Larreetan eta mendietan janarik ez egotean negurako ziren janak gastatzen aritu gara. Ahal izan dugun bezala ibili gara.

**Negurako bazka jaso zenuten?**

Gu garaiz ibili ginen eta maiatzerako negurako belarra sartuta genuen. Eta kanpotik beste bazka batzuk ere ekarri genituen, nahiko. Jakin gabe zer heldu zen, baina ematen zuen nonbaitetik bagenekiel, eta, bai, billegia garaiz bete genuen. Horri esker, pixka bat defendatu gara uda honetan.

**Negukoak jateak gastu bat ekarriko zuen, ezta?**

Hala da. Garai honetan gastu urte guztiko baxuena izaten da, ardiak bai larrean bai mendian baitaude, eta apenas ematen dute

gasturik. Baina aurten neguko belarrak eta bazkak ematen aritu gara eta gastua askoz ere handiagoa da.

**Aiton-amonek esaten dute beraien garaien azienda ibintzetan ibiltzen zela. Aukera da?**

Guri ez digute horrelakorik esan. Baina ahal izan dugunari heldu behar izan diogu. Esate baterako, orain arte barruan jaten ibili dira. Baina orain arte egin ez duguna egin dugu. Ondoan behizaleak ditugu eta siloa egiteko artoa jaso dute. Eta haiek aprobetxatu ez dituzten artaburuak jaten egon dira gure ardiak. Ahalik eta gehien aprobetxatzeko egin dugu.

**Mendian ura eskas, ibarrean bermatuago?**

Behean gutxi dago, baina mol-datzen dira. Erreka bazterretara-eta jaisten dira, eta ikuiluan egon diren bitartean ura badute. Ez da arazo handirik egon. Baina goian bai, arazoa serioa izan da. Guk Andian baltsa natural batzuk ditugu, ez dago gehiago. Eta haiek garila akaberarako erabat lehortuta zeuden. Azien da urik gabe ezin da han egon.

**Orain euria gozo eginen balu, zerbait konponduko litzateke?**

Gozo-gozo egin beharko luke. Ez dakit. Bota izan dituen lau tantekin ez du ezta gainazala bustitzeko ematen ere. Esperantza badaukagu, baina ez dakit udazkena nola etorriko den.

**Artaldea mendira berriro igotzea?**

Ez dakigu. Esperantza ez da inoiz galtzen. Udazkenean pixka bat berdetuko balu, igotzeko aukera egonen balitz, gustatuko litzazuke. Egunean eguneko ikusi beharko da.

**Uda ardiak estaltzeko garaia da. Umatuko dira?**

Gureak baietz uste dut. Horregatik ez ditugu mendira eraman. Mendian egonen balira miseria pasako zuten eta orduan errazagoa da, nahiz eta umatu, abortuak eta arazoak izatea. Gure irudipena da nahiko ongi zainduta egon direla. Askoz ere gastu gehiagorekin, jakina. Baina uste dugu aharikoa hartu dutela eta, behintzat, fuerte daude.



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO  
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



### Beste ganaduzaleen aziendei udak berdin eragin die?

Bai. Haiek, gainera, lehenago jaitsi behar izan zuten. Behiak eta behorrak askoz gehiago sufritzen dute. Guk ardiak jaitsi genituenerako azienda larria jaitsia zegoen.

### Egia da aziendaren bat bere kabuz bordara jaitsi dela?

Ez dakit. Ziurrenik baten batek etxerako bidea hartuko zuen, bai. Ez da gure kasua izan. Pixka bat luzatu duten horiek, azienda sufritzen hasten denean, etxerako bidea bilatzen du, bai.

### Eta honen guztiaren aurrean, zer egin daiteke? Zer eskatzen duzue?

Hau ez da kontrolatu dezakegun gauza bat. Lehendik ere nahikoa justu bagabiltza, eta horrelako egoerekin gobernuaren alde-tik-eta laguntzak beharko genituzke. Esaten dutenez zerbait pentsatzen ari dira (Nafarroako Gobernuko Landa Garapen Departamentuak 6 milioi euroko neurria iragarri du animaliak elikatzeke lehengaien kostuen igoera konpentsatzeko. ).

### Energia ere garesti dago.

Aurten dena elkartu da. Kostuak alde guztietatik igo dira. Eta, gainera, lehorteak errematea egin digu.

### Igandean Arakil eta Irurtzongo bertako ganadu azoka. Hara doanak, azienda erakusketan ikustean, zer hausnarketa egin beharko luke?

Hemen barruan ez dagoenak gure egoera ulertzea zaila da. Nahiz eta jendea azaldu, barruan egon arte jendea ez da kontziente zer suposatzen duen halako azienda aurrera eramateak. Galdetzen dute: Nola zaudete? Eta lehorteak nola eragiten dizue? Jendeak galdetzen du, baina beti esaten diegu: hau zer den bizi arte ezin duzu ideiarik egin. Ematen du beti negarrez ari garela, gauza bat ez bada beste daukagu. Baina egia da lan handia dela eta zailtasunak ere asko dira.

### Zuen burua edo bakarren bat ikusi duzue esan duena: "dena utzi, eta aurrera"?

Gu gazteak gara eta aurrera egiten dugula uste dut. Hau pasako da, zikloak izaten dira. Baina jendea harrapatzen duen egoeraren arabera... Batzuk ekonomikoki oso itota daude. Dagoeneko ez da kostuen igoera bakarrik, produktuen prezioa ez dago bere momenturik hoberenean. Gainera, aurten etorri den hau askorendako akabera izanen da.

# "Bistan dago oso osasuntsuak direla"

**LUIS BERAZA AMEZTEGI** BERTAKO BARIETATEAK PROIEKTUKO KOORDINATZAILEA

Arakil eta Irurtzongo bertako ganadu azokaren baitan herri bazkaria izanen da Pikuxar elkartearen. Menuan baba txikiak izanen dira

**Alfredo Alvaro Igoa** IZURDIAGA

Bazkarirako jendea izena ematen aritu da astean zehar. Platerean izanen dituzten baba txikiak Etxarri Aranazko Begoña Gokoetxea Zabaletak ekoiztutakoak izanen dira.

### Nola prestatzen dira baba txikiak?

Igandekoak Machain ostatuko sukaldariak prestatuko dituzte. Haiek astero, astearteetan, egiten dituzte. Feria egunerako oso plater ohikoa zen. Baserritarrak-eta gosaltzera, hitz egitera elkartzen zirenean askotan baba txikiak eskatzen zituzten. Plater hori prestatzea oso erraza da. Babarrun beltzak prestatzea bezala da. Norberak bere errezeta dauka, baina orokorrean, hau da: bezperan uretan biazten utzi; bigundu ondoren, denborarekin, sutan jarri ura, olio, baratxuria, tipularekin. Oinarria hori da, baina bakoi-tzak nahi duena gehi dezake: birika, txerrikoa edo gustuko duena. Hori bai, suabe-suabe egon behar dira egiten. Behar-bada hiru ordu egon behar dira sutan. Hori baba txikiaren arabera da, eta biaztu arte.

### Babarrun beltzekin bezala, hau bezperatik prestatzen bada, hobe?

Denetarik dago, baina, orokorrean iruditzen zait baietz. Salda nahiko loditzen da. Etxean egunean egindakoak jaten ditugu, baina hurrengo egunerako, askotan, pila loditzen da. Etxean, amak, hurrengo egunean baba txikiak purea egiten zuen. Eta ogiarekin zopak labean egin. Hori etxean ohiko platera zen.

### Zer zapore dute?

Lekaleak dira eta niri gustatzen zaizkit. Baina batzuek zapore fuertea daukate. Agian ez dira oso gauza fina. Eta, behar-bada, txikitatik jateko ohitura baduzu, errazago egiten zaizu. Probatzea da. Aukera baduzue, nik, behintzat, eskatuko nituzke. Zeren, normalean etxeetan ez dira ikusten, eta dendetan ezta



Bertako Barietateak proiektuko kide eta koordinatzaile Luis Beraza Ameztegi.



Baratzean baba txikiak baratxuriaren artean. UTZITAKOIA

ere. Batzuetan kostatzen da dendetan salgai opatzea.

**Garai batean Arakilen landu ziren?**  
Bai. Arakilgo herrietan, Sakanako beste herrietan bezala,

**"HELDU DEN URTERAKO HIRIBERRIKO BABA TXIKIEN HAZI GEHIAGO IZATEA ESPERO DUGU"**

ohikoak ziren baratzetan. Lehen oso ohikoak ziren etxeetan, ohiko platera zen. Egunerok jaten zen zerbait zen. Oso erraz ekoizten dira. Arakilen baratzetan zer landatzen zen aztertzen eta lehengo barietateak ote zeuden begira egon zirenean, Hiriberri Arakilgo etxe batean baba txikia opatu zuten, txuria eta beltza. Oso ale gutxi ziren. Aurten ekoizle pare batek beraien baratzetan izan dituzte. Jaso dute uzta eta heldu

den urterako hazi gehiago izatea espero dugu, eta pixkanaka berreskuratzea Arakilgo barietate hori.

### Txuriak eta beltzak esan duzu. Barietateak daude?

Bai. Beltza erabat beltza da, pikorra. Eta txuria beixa edo marroixka da.

### Zapore aldetik aldea dago?

Nik ez ditut desberdintzen. Hargia-eta botatzen baduzu, zaporea, batez ere, beste osagaiengatik aldatzen da.

### Nolako landarea da?

Neguko labore bat da. Normalean San Martin inguruan, azaroan, ereiten da. Ez dauka misterio handirik. Baratzean lasai asko egon daiteke elurteekin edo izotzarekin. Normalean ez da izorratzen eta oso indartsua da. Ilaretan ereiten da. Baba handiaren landarearen oso antzekoa da, pixka bat buxagoa da. Zikloa egiten uzten da eta udaren hasieran-edo jasotzen da uzta, lehortzen denean. Urteen arabera, Iruñerrian eta beste hainbat tokitan, sorotan ereiten dute, lurra atsedean pixka bat hartzeko. Garia eta garagarra ereiten den soroetan egoten da baba txikia. Ez dakit mota bera den, animalien elikadurarako izanen da. Babak nitrogenoa lurtean finkatzen du. Horregatik esaten da lurra atsedean hartzen duela.

### Zaintza lan handiak eskatzen ditu?

Ez du ia ezer eskatzen. Gehienez, belarrak kendu behar dira, baina besterik ez. Ez dauka misteriorik. Oso indartsua da.

### Kontserbaziorako, zer?

Komenigarria da izoztea egun pare bat. Zeren askotan baratza edo soroetatik harrekin heldu dira. Egun pare bat izoztuz gero, gordetzeko ohiko tokira atera, eta ez dago harrak izateko arriskurik.

### Merkatua dute baba txikiak?

Nik uste dut baietz, nahiz eta plater eta lekale hau pixka bat ahaztuta izan. Azkenean, bistan dago oso osasuntsuak direla; energia asko daukate, proteinak eta oso interesgarriak dira gure dietarako berreskuratzea. Dendetan, pixkanaka, gehiago ikusten dira; merkatuetan, batez ere. Uste dut pixkanaka berreskuratuko dela. Inguruan galdetuz gero, norbaitek baratzean izanen ditu. Badakigu daudela Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzan. Beste mota batekoak, baina ekoizleak badaude.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Ekintzailea

Bera euskalduna da, ez elebiduna. Hala ere, berak gaztelaniaz ongi hitz egiten du eta ingelesez ere dezente moldatzen da, frantsesez ere pixka bat. Berak ez du bere burua elebidun ikusten, horrela eginen balu erdarak bere izaera konkistatua sentituko luke, eta berak euskaldun izan nahi du. Aukera duenean, bizitzaren esparru guztietan euskaraz egiten ahalegintzen da, hala ere, beharrezkoa denean ez du inolako eragozpenik gaztelaniaz ala ingelesez egiteko. Batzuek galdera luzatzen dute: euskara zertarako? Berak argi dauka. Euskara, bera den pertsona izateko. Hainbat belaunalditan bere arbasoen bidez jaso duen kultura berea egiten duelako, euskara altxor paregabea delako. Hizkuntzen itsasoan, gaztelania, frantsesa eta ingelesaren aldean, hizkuntza txikia, baina berea, eta bera pertsona bezala identitatea ematen diona, euskaldun egiten duena. Euskalduna ez dena, erdalduna da. Euskaldunak Euskal Herria egin lezake, erdaldunak askoz jota ere Erdal Herria eginen luke. Batzuek esaten dute euskaldun izatea zaila eta nekeza dela, baina ez dira konturatzen gizarte erdaldundu honetan besteek ez duten altxor baten jabe direla, euskararen altxorra. Horregatik,

bera euskaldun izaten saiatzen da Euskal Herriko txoko guztietan, askotan erdara nagusi den itsasoan ere. Kontziente.

Ezagunekin, euskaldunekin beti euskaraz hitz egiten du. Ezezagunekin, lehenengo hitza beti euskaraz. Askotan

## EUSKARA ZERTARAKO? BERAK ARGI DAUKA. EUSKARA, BERA DEN PERTSONA IZATEKO

ustekabeak izaten ditu, Altsasuko taberna batean 'kafe ebaki bat' ulertu ez eta gaztelaniaz egiteko eskatzen diotenean bezala. Berak arazorik gabe eta adeitasun osoz gaztelaniaz egiten du. Baina beste batzuetan, espero ez duenean, euskaraz eder ulertzen diotela konturatzen da, jakinda berrogei urtetik azpiko gazteen artean Sakanerrian ehuneko laurogei batek eta Iruñerrian heren batek euskarazko erduan ikasi dutela. Ustekabe horiek poztasunez hartzen ditu. Beti ere, naturaltasunez jokatzeko saiatzen da, aurrean duen pertsona errespetatuz eta egoera bakoitzera malgutasunez moldatuz. Bestalde, jakitun da euskaldun bezala hizkuntz eskubideen jabe ere badela, eta ahalegintzen da eskubide hori errespetatzea, batez ere, administrazio publikoetako leihatiletan. Horietan, penagarria da dagoeneko Nafarroako Gobernuan zortzi urte daramatzatela gobernu "aurrerakoa" beren buruari esaten diotenak gobernuan, eta oraindik ere ez dela ezertxo ere nabaritzen herritarrei legez eskaini beharreko euskarazko arretan. Euskaldun izateagatik harrotasunez, eta altxor baten jabe delako poztasunez.

## HARA ZER DIEN

### Elkarri laguntza "ematen badiogu"?

#### SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

"Pobrezia ez da istripu bat. Esklabutza eta apartheid-a bezala, gizakiak sortua da, eta gizakien ekimenekin suntsi daiteke". Nelson Mandela.

Elkarri Laguntza krisiak, langabeziak eta etxebizitzaren premiak eragindako elkarteak da. Horizontala. Gizarte sentsibilizatu nahi du pobrezia eta bazterkerien aurrean; kalitatezko politika publikoak aldarrikatu eta bultzatu; bizitza komunitarioan parte hartu, familien gizarteratzea eta ahalduzko lortze aldera, ama bakarren kasuan eta gazte migratuekin bereziki.

"Gutxi nabarmentzen da gizartearen, ezertxo ere ez dutenen beldurra, estutasuna eta jakineza. Elkarteak saiatzen da bakarrik senti EZ daitezen, BAKARDEAN, eta haien bizi proiektuaren alde BORROKA dezaten; bizi dituzten bazterkeria egoerei nolabaiteko irtenbideak ematen".

Elkarri Laguntza familiei laguntza eta elkartasuna partekatzen dien irabazirik gabeko sarea da. "Indargune kolektiboak probestu nahi ditugu, banako ahuleziei aurre egiteko". 2008ko krisiak

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus).

ekarritako etxegabetzeen ondorioz sortu zen. Etxegabetze prozesu latzetik ateratako boluntarioak dira, 49 pertsona gaur egun.

Orain dituzten proiektuak:

- Jakiak, barazkiak eta fruta banatzea Arrotxapean alokatuturik duten zentroan.
- Arropategia : bigarren eskuko arropa eta joko/jostailuak jaso eta banatzeko.
- Familia "monomarentalak" laguntzea, mota guziko informazioa zabalduz: oinarritzko errenta, alokairua, erroldatzea, osasungintza, erregularizazioa, atzerriartasun kontuetan aholkularitza...

• Gazte migratuei arreta: formakuntzan, kirol jardueretan, hizkuntzen prestakuntzan, lan bilaketan...

Azken urteetan, Sakanako Mankomunitatearen Euskara, Kirola, Berdintasuna eta ANIZTASUNA zerbitzuekin elkarlanean dihardute.

Laster izango da haien egitekoa aurrez aurre zuzenean ezagutzeko aukera. Hortaz, erne ibili datozen asteetako berriei.

Elkartarekin kolaboratzeko: [anitzartean@sakana-mank.eus](mailto:anitzartean@sakana-mank.eus) (648 07 07 10)

Eta "Elkarri Laguntza" ematen badiogu?



## OBJEKTIBOTIK

Itsasi Euskaltegia  
@ItsasiEuskaltg

**ZATOZ EUSKALTEGIRA ETA**  
Hobeki ulertuko duzu Guaixe, euskarazko telebista saioekin gehiago gozatuko duzu, ezagunekin euskaraz egin ahal izango duzu, literatura euskaraz irakurtzen hasiko zara, whatsappk ere euskaraz, euskara tituluren bat lortuko duzu, euskaraz aritzeko lotsa galduko duzu...

Guk, AEK-ko irakasleok, bi irakaslek beste balio dugu eta!

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketazalea:**  
Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZALEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

**Zuzentzailea:**  
Maider Gabirondo Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

#### LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Gobierno de Navarra**  
**Nafarroako Gobernu**

## Dinabide irabazi asmorik gabeko elkarte bihurtu da

Dirulaguntzak jaso eta proiektuen partaide izan daiteke. Elkarteak enpresen inplikazioa handitzea dakar

### IRURTZUN

Sakanako Garapen Agentziaren (SGA) eskutik, 2019ko maiatzaz geroztik Dinabide ibarreko enpresen berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzen ari da. Irurtzungo Udala sustatzaile handia izan da, baina kudeaketaz orain arte SGA arduratu da. "Baina Dinabideren sorreratik egindako bidean ekimena eragile eta lurralde gehiagoren parte hartzera irekitzeko aukera eta egokitasuna ikusi da", azaldu du SGAko kudeatzaile Iker Mantrola Mantxainek. Horregatik, hilaren 9an egindako bileran erabaki zuten Dinabideri lege izaera eman eta irabazi asmorik gabeko elkarte bilakatzea. Eratze batzar horretan elkartearen sustatzaileak dira SGA, Irurtzungo Udala, Sakanako Enpresen Elkarte eta NODO 4.0 elkarteak.

Sortu berri den elkartearen helburua izanen da Dinabidek orain arte egindako ibilbideari segida ematea. Horrekin batera, helburuen artean izanen du "enpresen berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzeko ekimen berriak sustatzea. Horretarako, prestakuntza eta ekintzailtaz aparte, enpresen arteko elkarlana eta berrikuntza proiektuak izango dira lan ildo nagusiak".

Manterolak azaldu duenez, "Dinabide elkarteko helburuekin bat egiten duten enpresa eta eragileek kide izateko interesa badute, dagoeneko eskabideak aurkeztu ditzakete". Hurrengo pausoa izanen da elkartearen

lehen batzarra ilbeltzerako deitzea. "Orduan zuzendaritza, bazkide berriak eta 2023 urterako ekintza plana onartuko dira". Kudeatzaileak azaldu duenez, aurretik martxan zeuden hainbat proiektu badituzte, esaterako, Iris proiektua hiru urterako dirulaguntza duena. "Eta betse proiekturen bat ere gauzatuko da", aurreratu du.

### Zergatia

Erakundetzeko zeuden aukeren artean aztertu eta Dinabide irabazi asmorik gabeko elkarte bihurtzearen alde egin dute. "Formatu irekia delako eta eragileen parte hartzerako erraztasuna ematen dutelako", azaldu du Manterolak. Azpimarratu duenez, "orain arte SGAk kudeatu du Dinabide eta beti izan ditugu kontuan enpresen iritziak. Baina orain bazkideak erabakigunean egotera pasako dira, enpresen inplikazioa handituko da, haien proiektu bat izatera ere pasa delako. Hori ere helburuetara iristen gairela ziurtatzeko laguntza izanen da".

Dinabidek Sakanan eragin nahi du, baina jabetu dira "masa kritikoa" behar dela horretarako: kanpoko ezagutza eta baliabideak erakartzea, batez ere teknologiari lotutakoak. "Horrela, ibarreko enpresei bertarako eta kanporako elkarlana ateak zabaltzen zaizkie. Lan esparrua Nafarroara zabaldu dugu". Halako guneak Sakanan egotearen garrantzia azpimarratu du.

## Musika eskolendako 121.775,33 euro

Bost udal musika eskolen aurrekontua udalen, Nafarroako Gobernuaren eta ikasleen ekarpenekin osatzen da. Gobernuak banatu dituen hiru miloi euroren %4,05 jaso dute ibarreko ikastetxeek

### SAKANA

Nafarroako 46 udal musika eskolekin batera, Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko musika eskolek Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko dirulaguntza jaso dute. Gobernuak aurreko urteetako hiru milioi euroak banatu ditu, baina musika eskola bat gehiago dago onuradunen zerrendan. Udalek jasotako dirua beraien musika ikastetxeen gastuak ordaintzera bideratuko dute. Berez, musika eskolen aurrekontuaren heren bana udalarena, Hezkuntza Departamentuarena eta ikasleena izan beharko luke. Baina gobernuak ez du dagokion zatia ordaintzen. Beraz, udalen eta ikasleen bizkar gelditzen da musika eskolei eustea.

Sakanako bost musika eskolek 887.834,16 euroko aurrekontua dute eta haren %13,72 jaso dute bakarrik. Ikastetxe batetik bestera alde dago, Irurtzungo Udalak ikastetxerako 150.000 euro inguruko aurrekontua du eta 32.500 bat euro jaso ditu, hau da, aurrekontuaren %21,74. Lakuntzako musika eskolaren aurrekontua 128.000 euro ingurukoa da eta dirulaguntza, berriz, 19.500 eurokoa (%15,29). Etxarri Aranzko Udalak 170.000 euro inguru



Emakumezkoa musika eskolarantz joaten. ARTXIBOA

ru bideratzen ditu musika eskolara eta foru administrazioetik 33.000 euro jasoko ditu (%19,68). Altsasukoak 400.000 euro inguruko aurrekontua du eta dirulaguntza 32.000 eurokoa da (%8). Azkenik, Olatzagutiko Udalak musika eskolara 41.000 euro inguru bideratzen ditu eta 4.500 bat jaso ditu (%10,65).

Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzak hainbat irizpideren arabera banatzen ditu, esaterako: ikasle kopurua, adina, egindako espezialitatea edo 21-22 ikasturtean matrikulatutako

irakasgaiak. Departamentuak bi ordainketa egiten ditu urtero. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi duenez, "bi ordainketa ebazpen berri emango dira, eta laster izapidetuko dira". Nafarroako Gobernutik azaldu dutenez, berak "udal musika eskolatan garatzen ari den zereginari laguntzea da, arautu gabeko musika irakaskuntzako ikastetxe horien funtzionamendu gastuak partzialki finantzatzu. Horrela, hobetu egiten dira ikasleak ikastetxe horietara sartzeko baldintza materialak".



Larunbateko ibilbideko parte hartzaileak Lakuntzako San Anton ermitan. SGA

## Donejakue bidea hobe ezagutzeko pauso eta hitzak

Ibilbidea bera eta hari buruzko ezaugarriak ezagutzera ematen ari dira hitzaldi eta ibilaldi bidez

SAKANA

Ibarra ekialdetik mendebaldera zeharkatzen zuen Donejakue bideak garai batean. Sakanako Garapen Agentzia (SGA), Sakanako Plan Estrategikoaren baitan, ibilbidea berreskuratzeko lanean ari da. Horretarako, trazadura berri bat zehaztu dute, beti ere, garai bateko ibilbide historikoa errespetatuz, Sakanako herriak lotuz eta Donejakue Bideak gure bailaran dituen toki nagusiak balioetsiz. Hori egin bitartean, SGAK sakandarren artean ere ezagutarazi nahi du. Horregatik, zikloa antolatuta du, hiru txandetan garatuko dena: hiruna hitzaldi eta hiruna etapa izanen ditu. Donejakue Bidearen Lagunen elkartearen laguntzarekin ari dira guztia antolatzen.

Aurreneko txandan, Zamartzen eta Aralarko santutegi inguruan arkeologia indusketa kanpainak zuzendu zituen Fran Valle de Tarazaga izan zen hizlari. *Mundu jakobeora trantsizioa* izenburuko hitzaldia eskaini zuen Zamartzen. Bidearen ibilbideez eta opatutako arkeologia aztarnez hizketatu zen 50 bat pertsonaren aurrean. Agorriaren 6an egin zuten Sakanako Donejakue bidea ezagutzeko aurreneko etapa. Irurtzun eta Zamartze arteko bidea egin zuten oinezkoek. Bidean geldialdia egin zuten Itxasperiako ermita erromanikoa ezagutzeko. Helmugako eraikinari buruzko argibideak jaso zituzten ibiltariak ere.

Bigarren txanda asteburuan izan da. Alfonso Garziandia Goñi

apaiz etxarriarrak *Santiago apostoluaren hilobia* izenburuko hitzaldia eman zuen Iturmendiko udaletxean ostiralean. Hogei bat pertsonari eman zizkien azalpenak. Larunbat goizean, berriz, Sakanako Donejakue bidea bertatik bertara ezagutzeko bigarren etapa egin zen. Ibiltariak bidetari ekin aurretik, Aralarko santutegiko kaperau Mikel Garziandia Goñik Zamartzeri buruzko eta hango elizari buruzko argibideak eman zizkien oinezkoen taldeari. 20 bat pasa ibiltari egin zuten Zamartze eta Bakaikuko Santiago ermitaren artean.

Donejakue bidea ezagutarazteko zikloa hirugarren txanda batekin osatuko da. Burunda zeharkatuko dute oinez eta bidetari buruzko beste hitzaldi bat programatuko dute antolatzaileek. Oraindik datak zehazteko daude, baina garaziz jakinaraziko dituztela azaldu dute.

### Turismo informazio puntua

Lizarragako portu gainean, tunelaren beste aldean dagoen aparkalekuan turismo informazioarako puntua zabaldu dute uda honetan. Amekoak dira hura kudeatzen dutenak. Eta puntu horrekin batera Urbasako Ubaban dagoen turismo informazio bulegoaren ardura dute. Azken hori aurretik zegoen martxan. Handik pasa denak ikusiko zuen nola informazio etxola tokiz aldatu duten eta aparkalekuko espazioa egituratu eta zuhaixkak landatu dituzten.

# Haurrendako euskarazko eskaintza handitu nahian

Ikastetxeaz eta eskolaz aparte, aisialdia euskalduntzea ezinbesteko jo du Kultura Euskaraz, Ainguratu Gura ekimenak. ETB 3ren emisioak, kultur guneko euskarazko programazioa handitzea, eskolaz kanpoko eskaintza euskaraz izatea eskatu du

ALTSASU

Euskara ezagutzea eta euskaraz hitz egitea edo euskaraz bizitzea gauza bera ez dela jakitun, seme-alabak "euskaraldun aktibo izatea" nahi dute hainbat gurasok. "Horretarako, ez da nahikoa eskolan eta etxean euskaraz aritzea edo ikastea. Hizkuntza batean bizitzeko, ez da nahikoa etxeko eta eskolako lana. Hizkuntza batean bizitzeko hizkuntza horretan gozatu egin behar da", adierazi dute Kultura Euskaraz, Ainguratu Gura ekimeneko kideek. Eta "gozatze" horretarako "aisialdia euskalduntzea premiazkoa" jo dute, haien iritziz, "momentu honetan Altsasun euskaraz bizitzea oso zaila baita ume, gazte zein helduondako".

Ekimenaren sustatzaileek haur eta gazteek "euskara ekintza dibertigarriekin lotzea" nahi dute, "euskaraz bizitzeko". Izan ere, hainbat gurasok ezinbesteko ikusi dute haien seme-alabek euskara egunerokoan aritzeko beharra. Jakina, "horretarako, helduok, gurasook eredu izan behar dugu, eta zer esanik ez udalak". Horregatik, ekimeneko kideek udalari eskatu diote "bere egiteko guztietan euskararen normalizazioa presente" egotea.

### Hiru foku

Haur eta gazteen aisialdia euskalduntzeko fokua hiru tokitan jarri dute Kultura Euskaraz, Ainguratu Gura ekimeneko kideek. Aurrena, pantailak, telebistakoa eta gailu elektronikotakoak. Euskara hutsez eta haurrei zuzendutako ETB 3 Sakanan ikusteko aukerarik ez dagoela gogorarazi dute lehenik. Horregatik, jakinarazi dutenez, hainbat gurasok "ezinbestean, telefono konpainia hautatzerakoan, ahal denean, ETB 3 eskaintzen dituzten konpainiak hautatu ditugu". Kate hori eta pantailak euskaraz izatea lortzeko udalari eskatu diote "da-



Haurrak Zumalakarregi plazako jolas parkean. ARTXIBOA

## NAHI DUTE UDALAK "EGITEKO GUZTIETAN EUSKARAREN NORMALIZAZIOA PRESENTE" IZATEA

gokion foroetan eskaera horren alde borrokatzeko".

Bigarren fokua herriko kultur eskaintzan jarri du Kultura Euskaraz, Ainguratu Gura ekimenak. "Etxetik ateratzerakoan, euskaraz bizitzen jarraitzeko kultur eskaintza zaindu nahi izan dugu beti, baina gure herrian ez da erraza izan, eta gure seme-alabak eta gu geu euskaraz bizi ahal izatea oso zaila da". Kexu da hilean behingo euskarazko zinema emanaldia: "ez du kultur eskaintza euskalduna bermantzen ez asetzen". Gainontzeko adin tarrendako eskaintzaren portzentajea ere euskaraz bizi ahal izateko ez dela nahikoa gaineratu dute. "Egun, euskaraz dakien ume eta gazteen ehuneko altua da, zorionez, eta ume eta gazteen kultur eskaintza, eskutik joan beharko litzateke". Helduondako eskaintzak ere bide bera segitu

beharko lukeela gaineratu du. "Egia izan daiteke euskarazko kultur eskaintzek jende gutxiago jasotzen dutela, baina ohitura sortzeko, eskaini egin behar da. Egun dagoen hutsunea handia da, eta ezinbestekoa da lehenbailehen hori aztertu eta dauden aukera eta baliabide guztiak martxan jartzea".

Iortia kultur guneko programazioaz aparte, kultur eskaintza festa eta ospakizunetan ere badagoela gaitzatu du. Horregatik, udalari "euskararen egoerak eskatzen duen tamainako erantzuna izatea eskatu" dio, "horietan guztietan haur eta gazteei zuzendutako ekintzak euskaraz eta euskal kulturaren oinarritutakoak izatea ezinbestekoa ikusten dugu". Helduondako eskaintzarako ere aldarrikapen bera egin du.

Azkenik, ekimeneko kideek eskolaz kanpoko eskaintzari erreparatu diote. "Udalak bermatu beharko luke euskaraz eskaini ez ezik, euskaraz egiten direla, eta komunikazio hizkuntza euskara dela; batzuk erdaraz egiten baitira". Euskara ekintza "dibertigarriekin" lotzeko "ezinbesteko" eskaintza jo dute.

# Ekopasagune batek Aralar eta Urbasa-Andia Aritzalkon lotuko ditu

Bi mendiak Natura 2000 sarekoak eta Kontserbazio Bereziko Eremuak dira. Espezieen kontserbaziorako bi mendien lotura ezinbestekoa da. Autobia eta errepidearen gainean eginen den zubiak abereak batetik bestera ibiltzeko aukera emanen du

**Alfredo Alvaro Igoa** ETXARRI ARANATZ Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko teknikariek aspaldi dute begiz jota Etxarri Aranzako Aritzalko basoa. Izan ere, Sakana iparraldean eta hegoaldean dauden mendien arteko lotura egiten du hariztiak. Teknikariek egindako ikerketak ere gauza bera berretsi zuen: Aritzalko parean abere ugari hiltzen ziren ibilgailuak harrapatuta, beste tokietan baino gehiago.

Ikerketa horrek agerian utzi du ibarrean dauden azpiegiturak (autobia, errepideak, trenbideak) oztopo handia direla fauna ornodunaren joan-etorrietarako. Teknikariren iritziz, azpiegitura horiek hedatze fasean dauden espezie oso ezagunen hedapenari eragiten dizkie eragozpenak, esaterako, orkatzari. Bi mendiak "espezie ugari kontserbatzeko oso garrantzitsuak" direla azpimarratu dute teknikariek. "Horregatik da bien arteko konektibitatea funtsezko elementua beren kudeaketa planetan", nabarmendu dute. Ugaztunen populazioa arteko genetika trukea erraztuko luke pasaguneak eta harrapaketak saihestu.

Horregatik, "lurreko espezieen fluxu egokia lortzeko", Sakana Autobiaren (A-10) eta NA-2410 errepidearen "iragazkortasuna bermatzeko", haien gainetik pasabide bat eraikitzea egoki jo dute. Hori Aritzalkon egitea erabaki dute "bertan hurbiltzen baitira gehien landaredi naturala eta zuhaitz estaldura autobidearen bi aldeetara. Gainera, lurraren topografiak nabarmen erraztuko ditu ekoduktua eraikitzeko lanak", azpimarratu dute.

Gobernuak Europari dirulaguntza eskaera egin zuela jakinarazi zion lehenik Etxarri

Aranazko Udalari. Jaso ondoren, Itziar Gomez Lopez kontseilariak eta teknikariek egitasmoari buruzko azalpenak eman zizkieten lurren jabe diren udaleko eta han soro bat duen familia baten ordezkariari. Udaberri akaberako bileran, besteak beste, soroa ahalik eta gutxien ikutzeko proposamenak egin zituzten etxarriarrek. Silvia Marañon Chasco alkateak azaldu duenez, "haien proiektua da eta haien egiten dute. Baina jarrera ona izan dute eta egindako ekarpenak kontuan hartu zituzten".

Faunarendako pasabidea egiteko 26.000 metro karratu inguru desjabetuko ditu. Haietatik 20.600 m<sup>2</sup> inguru udalarenak dira (16.210 m<sup>2</sup> Aritzalkon, gainontzekoa Auntzasoron). Beste 5.400 m<sup>2</sup>-ak familiarenak dira. Proiektua behin behinean onartu ondoren, lurak desjabetzeko prozedura abiatu da. Jendaurrean hilabete bukaera arte dago, egokitzat jotzen diren ohar edo alegazioak egiteko.

## Ekoduktu egitasmoa

Egitasmoak 5 milioi euroko aurrekontua du eta 2023ko akaberarako egina egon behar du. Aritzalkon Javier Eseberri Arraras zena gogoratzeko oroi-garria dago (lehen Korrikan parte hartu ondoren, etxera bueltan autoak harrapatuta hil zen). Departamentuak jakinarazi duenez, pasaguneak puntu horretatik Etxarrirantz 63 metroko zabalera izanen du.

**HARRAPAKETAK: 29 BASURDE, 25 ORKATZ, 24 LEPAZURI, 22 AZERI, 21 AZKONAR, 9 BASAKATU, 5 ERBI**

Eta autobiaz beste aldean Etxarriara ateratzeko irteera hasten da eta, ondoren, dagoen Auntzasoro dermioko hariztia eta soroak daude. Bi aldeak lotuko dituen ekoduktuak 100 metro baino gehiagoko luzera izanen du. Haren eraikuntzak Agarabiako bidea hegoalderantz eramatea ekarriko du, autobia egiterakoan egin zen lur pilaketaren gainetik. 175 bat metro berri egiten lirateke.

Pasabideak hiru bao edo begi izanen ditu: autobia noranzko bakoitzean bana eta beste bat errepide gainean. Autobia gainean 7,23 metroko altuera izanen du. Ekoduktuari eusteko egiturak pilareak eta PI habeen taula izanen ditu, eta 60 metro inguruko luzera estribuen artean. Taulak 63 metroko zabalera izanen du eta 26 PI habe. Habe horiek metro bateko luzera izanen dute eta 0,25 metroko lodiera duen hormigoizko lauzak.

Hormigoizko pilareen 2 formazio paratuko dira, 11 fustez osatuak. Fuste bakoitzak kapitela izanen du, eta haien artean 6 metroko tartea egon da. Pilareek 8 metro inguruko altuera izanen dute eta hormigoizko zapata jarraitu bat. Hormigoizko estribuak bide-korridorearen bi aldeetan jarriko dira, eta horma osagarriak izanen dituzte, aurrealdeko hormei jarraitutasuna emateko; guztia, ekodukturako sarbidea izanen diren lur betegarriari eusteko.

Bestetik, Iruñea eta Gasteiz Abiadura Handiko Trenaren bidez lotzeko egitasmoak espazio horri eragiten dio. Zirriborroaren arabera Aritzalko pasata AHT ibarraren hegoaldean iparraldera pasako litzateke, goi tentsioko argindar lineak egiten duen moduan.



Singapurren eraikitako zubi ekologikoa. UTZITAKOIA



Etxarri Aranatz, Aritzalko hariztian, ekoduktuak non egiten litzatekeen, eta bide berria.



Aritzalkon egiten litzatekeen ekoduktuaren irudikapena.



*Denon artean*

*— hobe! —*

*Proiektuan  
parte hartu  
nahi duzu?*

*[www.guaixe.eu/harpidetza](http://www.guaixe.eu/harpidetza)*





Dirulaguntza onartz gero makinak Bakea kalera bueltatuko lirateke. ARTXIBOA

# Ur ihesen arrastoari segika

Altsasuko Udalak ur biltegitik herrirako ur sarea berritzeko dirulaguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari, susmoa baitu tarte horretako puntu batean ur ihes handi bat dagoela. Urtero milioi bat metro kubiko galtzen dira

## ALTSASU

Urdalurko urtegitik (5.000 metro kubikoko gaitasuna du 14.300 biztanlerendako aurreikusituz baten) Altsasuko ur biltegitik sartzen den uraren eta udalak kontadoreen bidez kobratzen duen kopuruaren artean alde handia dago: milioi bat metro kubiko urtero. Ur hori udalak ordaindu behar izaten du, jakina. Herriko uraren behe hornidurako sarearen zati handi bat oraindik mikrozentuzko hodiz osatuta dago. Hodi horiek hauskorak dira eta udalak hainbat lan egin behar izan ditu horiek konpontzeko. Ur biltegitik herrira, San Joan kale hasierara heldu den hodia ere mota horretakoa da, 1970an jarritakoa.

Orduetik biltegiaren eta herriaren arteko zatian hainbat aldaketa egin dira saihesbidea eta autobia eraikitzean eta Geltoki

auzoko sareak eta zoladura berritzean. Horregatik, udalaren susmoa da ur ihes handi bat dagoela Ibarrea industrialdera doan zubiaren eta herriaren artean. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, "2020an egin zen ikerketa batean agerian gelditu zen ur biltegiaren eta aipatu zubiaren artean ez zegoela ur ihesik".

Horregatik, Altsasuko Udalak erabaki du ur biltegitik herrira arteko ur ekarriko hoditeria berritzea. Lanek 996.696,42 euroko aurrekontua dute. Lan hori egiteko udalak Nafarroako Go-

**UDALAK GOBERNUARI 4.014.602 EUROKO BALIOKO LAU INBERTSIO AURKEZTU DIZKIO**

bernuaren laguntza ezinbestekoa du. Horregatik, lana 2023-2025 Tokiko Azpiegitura Planean sartzea eskatu dio foru administrazioari.

## Beste ur sare bat

Foru administrazioaren dirulaguntza deialdi horretara beste hiru lan aurkeztu ditu udalak. Alde batetik, Dantzaleku kirol gunea, Altsasu institutua eta Iñigo Aritza ikastola urez hornitzen dituen ur sarea berritzea nahi luke udalak. Alkateak azaldu duenez, "sare horrek aipatutakoak eta San Pedroko Bidea kaleko zenbait etxe urez hornitzen ditu. Mikrozentuzkoa da eta zatirik handiengan oso hondatuta dago. Ondorioz, haustura ugari izaten dira. Gainera, egoera beragatik ur ihesak ohikoak dira". Ollok azpimarratu duenez, "udan, igerilekua pres-

tatzean eta zabaltzean, arazoak areagotu egiten dira: igerilekua betetzean edo ura berritzean bi ikastetxeetako uraren presioa jaisten da eta eragozpen handiak sortzen dizkie".

Konponbidea litzateke fundizioko ur hodiak jartzea, ur irakurgailuak berritzea eta erregistro kutxatiletan ura mozteko giltzak jartzea. "Horrela balizko ur ihesen kontrol eraginkorragoa eta momentukoa genuke. Gainera, ur ihesa balego sarea sektoretan banatzea errazagoa litzateke", azaldu du alkateak. Udalak lan hori 2024 eta 2025 urteen artean egin nahi luke. Bere aurrekontua 183.136,35 eurokoa da.

## Sareak eta zoru berritzeak

Herriko zabalgunean egin dituen azken inbertsio handiekin Altsasuko Udalak Zumalakarregi plazako zoru berritu du eta Amaia eta Bakea kaleko zati bateko sareak eta zoladura berritu ditu. 2024 eta 2025 urteen artean lan horiei segida eman nahi lieke Bakea eta Gipuzkoa kaleetan. Azkeneko kalean ur hoditeria mikrozentuzkoa da eta guztia aldatzea da helburua. Aurrenekoan, berriz, azken 20 urteetan hainbat lan egin dira eta, beraz, halakoak gelditzen diren tarteak berrituko lirateke. Saneamendu sarea porlanezkoa da, 30 urte ditu eta oso hondatuta dago, beraz, sare guztia berrituko litzateke. Makinek kalea zulatuko balute, udalak zerbitzuendako kanalizazioak egiteko baliatuko luke. Bi kaleetan ere zoru guztiz berrituko litzateke. Azken lan horiek baliatuko lirateke gainontzeko kaleetan egin den bezala oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko. Lanek 1.451.033,45 euroko aurrekontua dute.

## Udaletxea

Batetik, herriaren etxeko energia eraginkortasuna hobetzeko ingurutzaille termikoa egingen da. Bestetik, barruko aldearen erabateko berrikuntza. "Udaletxeak gaur egun gabezia handiak ditu: espazio ez egokia, termika

**DANTZALEKUKO UR SAREA, BAKEA ETA GIPUZKOA KALEETAN LANAK ETA UDALETXEA HANDITZEA**

eta akustika isolamendu eskasa, airea berritzeko instalakuntza falta, udal artxiboa hartzeko espazio falta eta Udaltzaingoa ez du aldagaririk, armategirik ezta bilera gelarik", azaldu du Ollok. Hori guztiak konpontzeko udaletxean honako aldaketak egin nahi dituzte: eraikinaren barruko aldearen erabateko erreforma, beheko solairua handitzea teiltatu azpian dagoen artxibategia eta Udaltzaingoaren espazioa egokitzeko. Aurrekontua 1.383.737,34 eurokoa da.

## 2026-2028 aldian egin nahi direnak

Udalak, ziurrenik, laguntza eskaera 2024an aurkeztu beharko du.

### Sareen konponketa

- Zelai kaleko 146 zenbakiaren eta Texeria Aldapa kaleko 2. zenbakiaren arteko ur sarea berritzea.
- Beheko benta eta Gasteiz Etorbideko ur eta saneamendu sareak berritzea.

### Sareak eta zoladura berritzea

- Isidoro Melero kalean berritzea falta den zatia.
- JM Ezkurra kalea.
- Zelai kalearen zati bat.

### Erabilera askeko dirua

Nafarroako Gobernuak udalei nahi duten inbertsioak egiteko dirua emanen die urtero. Udalak aurten 95.436 euro jasoko ditu eta Amandrea plazaren zoru berritzera bideratuko du.

- **2023** Otadia urbanizazioko euri eta saneamendu sareak bereiztea.
- **2024** Erburua kaleko saneamendu sarea berritzea.
- **2025** Ibarrea industrialdeko sareak eta zoru berritzea.
- **2026** Ondarria industrialdeko sareak eta zoru berritzea.



Enpresa batzordeko kideak pankartari eusten. UTZITAKOIA

## Lan istripuak eragindako heriotza salatzen, isiltasuna

Azken bi urteak lanean hildakorik izan gabe pasa ondoren, aurten, dagoeneko, bi dira hildakoak

### OLATZAGUTIA

Enpresa batzordeak deituta, Cementos Portland Valderrivasko lankideak eta euskal gehiengo sindikaleko hainbat enpresetako ordezkariak kontzentrazio isila egin zuten enpresaren bulegoen parean ostiral eguerdian. Horrela, joan den ostegunean lantegian lan istripu baten ondorioz hil zen langilea gogoan izan zuten eta familiari elkartasuna adierazteko. Lur jota zeuden lankideak. Olatzagutiko porlandegiko enpresa batzordean gehiengoa duen ELAko kide batek esan zuenez, "orain ez, baina aurre-

rago eseriko gara zuzendaritzarekin hitz egitera".

Hildakoa 55 urteko olaztiarrazen, alaba utzi du. Enpesan 30 urte zeramatzen lanean. Bera ibarreko lantoki batean aurten hiltzen den bigarren langilea izan zen. Heriotza eragin zuen aurreko lan istripua Lakuntzako Sakanako kooperatiban izan zen martxoaren 18an. Orduan 39 urteko Berriozarko gizonezko bat hil zen. Orduan bezala, joan den astean ere, sindikatuak administrazioari eta zuzendaritzeari behala neurriak hartzeko eskatu diete.

### DUELA 25 URTE...



### Bi kale, konponduta

Lakuntzako festen ondoren lanei azken bulkada eman eta, haiek despeditzeko, langileek kalearen seinaleztapena egin zuten. Sareak berritzearekin batera gas sarea hedatu zuten, eta, ondoren, zorua berritu zuten. Haren gainean zebraideak eta aparkatzeko tokiak margotu zituzten. Eta zutikako seinaleak ere jarri zituzten. Umeak, Abarrategi kaleko aldapa baliatuta, patineteetan goitik behera ibiltzen ziren.

# Feministek festez gozatzeko deia egin dute

Ziurtatu duenez, 'zisheteropatriarkatuaren aurrean, emakumeok\* festaz gozatzera goaz eta ez gaitu inork geldituko; kaleak, gauak eta jaiak gureak direlako Borrokatzen jarraituko dugu, beldurrik gabe bizi eta gozatzeko eskubidea dugulako'

### ALTSASU

Herriko festak direla eta, Altsasuko mugimendu feminista osatzen duten Altsasuko Feministak, Altsasuko Bilgune Feministak eta Errafailak idatzi bateratua argitaratu dute, argi utziz "festak gozatzera" doazela. Altsasuko mugimendu feministan kezu dira "nabarmena" baita "azken aldian emakume\* eta sexu disidenteekin kontrako erasoak ugaritu direla eta jai giroan emandako erasoaren oldarraldia pairatzen ari garela". Eraso horiek "egunerokotasunean jasaten dugun egiturazko indarkeriaren baitan" kokatu dituzte. Ziurtatu dutenez, "jai giroan pairatu behar izaten ditugun eraso, bortxaketa, mehatxu edota indarkeria matxista ere badiren sumisio kimiko kasuak zisheteropatriarkatuaren emakume\* eta sexu disidenteekin kontrako hamaika zapalkuntza tresnetako bat da".

Mugimendufeministakokideen iritziz, "udan zabaldu diren izu mezuek nahasmena eta gizarte alarma hedatu dute". Haien iritziz, "nahasmen eta gizarte alarma hori sexu indarkeriaren mekanismo guztiak erreproduzitzen dituzten dinamikez elikatzen da, emakumeon\* askatasuna mugatuz". Altsasuko mugimendufeministakoen iritziz,



Erasoak salatzen erasorik ezaltsasun@gmail.com e-posta helbidera idatz daiteke.

"izu hori elikatzen duten diskurtsoek bestelako indarkeria mekanismo batzuk erreproduzitzen dituzte: beldurra bera gorpuzteaz aparte, 'ez eraman praka laburrik', 'kontuz ibil zaitez', 'ez bueltatu bakarrik etxera', 'geratu zaitez etxean' moduko mezuak entzun behar izan ditugu".

Salatu dutenez, "segurtasunaren aitzakiarekin polizia mekanismoak jartzen dira martxan". Altsasuko mugimendufeministak segurtasun eredu horrek "aske" ez dituela sentiarazten azaldu dute, "are gehiago bikti-

mizatzen gaitu. Ez dugu polizia-rik behar aske izateko". Horregatik guztiagatik, mugimendufeministatik gizonezkoek deitzen zuzena egin diete: "erasotzeari utzi behar diote eta indarkeria matxistan duten erantzukizunaz jabetu behar dira. Konplize izateari utzi eta arduraz erantzuteko garaia dute". Bitartean, festetan, "feministok jai giroa borrokatzen, erasoaren aurrean autodefentsa feministaz erantzuten eta guztiendako seguruak izanen diren espazioak okupatzen jarraituko dugu".

## Itaia ziztaden kontra

Lakuntzako eta Altsasuko festen aurretik ziztaden kontrako kontzentrazioak egin ditu Itaia. Haiekin "emakumezko gure egunerokotasunean jasaten ditugun erasoak eta jai giroan areagotzen eta normalizatzen ari diren beste indarkeria formak salatzen". Haiekiko "jarrera irmoa" adierazi eta denek artean erantzuteko eskatu dute.



# FESTAK

## Pikuxarreko bazkidearen eguna

Duela urte bat inguru mustu zuten Pikuxar euskal txoko berria, eta irailaren 17an, larunbatean, bazkidearen eguna ospatuko dute. Bermuterako elkartuko dira eta taldekako jolasak egingen dituzte. Ondoren, herri bazkarian bilduko dira eta arratsaldean, 19:15ean, The Guateqs taldearen kontzertua izanen da. Sorpresaren bat ere izanen dela esan dute Pikuxarretik.

## Feriaren atariko, ardo dastaketa

Arakil eta Irurtzongo Bertako Ganadu Azokaren atariko, Euskal Herriko Ardo Ekologikoen Dastaketa antolatu dute Biba Ardoak-ekin, ostegunean, 19:00etan, Irurtzongo Iratxo elkartearen. Azken horiek euskal mahastizainen ardo ekologikoen salmenta eta banaketarako kooperatiba dira. Bere baitan Euskal Herriko 17 etxalde txikitako mahastizain-ardogileak elkartu dira "ardo kultura berria, bizia, osasuntsua eta herritarra bultzatzeko". Guztira ia 100 ardo ekoizten dituzte gure etxaldeetan. Ordu bateko dastaketa prestatu dute. Ondoren Dastatu Sakanako produktuekin egindako pintxoekin ardoaz hitz egiten jarraitzeko aukera izanen da.

## IRURTZUN

### ARAKIL ETA IRURTZUNGO BERTAKO GANADU AZOKA

#### IRAILAK 18 igandea

10:00-15:00 Bertako abereen gunea: ardiak, behiak, zaldiak, txerriak eta oiloak.

- Azoka gardena: gazta, esnekia, ogia, ardoa, olio, barazkiak...
- Artisauak: tailerrak eta ofizioak
- Nekazal lanabesen erakusketa
- Soka lantze tradizionala
- Kale animazioa
- Forja artisauaren erakustaldia
- Taloen lanketa eta salmenta
- Baserriko jokoak

11:00 Hezte naturaleko erakusketa.

11:15 Bertsolariak eta trikitilariak. Pikuxar plaza Pikuxar euskal txokoak antolatuta.

Bertsolariak: Ainara Ilegi, Mikel Lasarte eta Peio Ardaiz.

Trikitilariak: Dorai ahizpak.

12:00 Gazta dastaketa eta herri txapelketa.

12:00 Udako postalen zozketa, Pikuxar euskal txokoan.

Aizpea euskara taldeak antolatuta.

14:30 Herri bazkaria, Pikuxarren.

Menua: Entsalada, Arakilgo baba txikia, oilasko gisatua, postrea, kafea eta kopa. Txartelak Irurtzongo eta Arakilgo udalteeetan eta Pikuxarren irailaren 15era arte.

18:00 Herri kirolak, Badaiotz herri kirol taldearekin.



UTZITAKOIA

**HIRIBERRI ARAKIL** Ostegunean hasi eta igandean despeditu ziren Hiriberri Arakilgo festak. Bazkari afariak, dantzaldiak, haur eta helduendako animazioak, mozorroak eta beste izan ziren.



**ZIORDIA** Igandean amaitu ziren festak Ziordian. Egun horretan Ziordiko Zortzikoaren emanaldia egin zuten Haize Berriak bandak, Txistulariek eta Etorbizuna dantza taldeko dantzariak.

# ZURE PUBLIZITATEA

# HEMEN



Informazio gehiago:  
948 564 275 | 661 523 245  
publi@guaixe.eus  
guaixe.eus/publizitatea/



## ALTSASU FESTAK

### IRAILAK 16 Ostirala

#### JAI BATZORDEAREN KUADRILLEN EGUNA

09:30 Dianak Altsasuko Musika eta Dantza eskolako txistu ikasleekin.  
11:30 Auzatea, Zubeztia elkarteak eskainita, Foru plazan.  
12:00 Herriko nagusiei omenaldia. Abardia jarriko zaie etxean, Udal Musika Eskolak girotua.  
12:00 Herri kirolak eta munduko jolasak, Iortia zabalgunean. Jai batzordeak antolatuta.  
13:00 Eguerdiko kontzertua: Goxua'n Salsa, Foru plazan.  
14:30 Nagusien omenezko bazkaria. Ondoren, Dantzaldia Trio

Digital taldearekin, 20:00ak arte, Iortia kultur gunean.

15:00 Elkartasun bazkaria, Zubeztia plazako karpan.

Jai batzordeak antolatuta.

16:00-20:00 Peñen kafea, merienda eta kalejira, Altsasuko Peñak antolatuta.

17:00 Txan Magoa, Baratzeko Bidea plazan.



17:30 Jokoak txarangarekin. Jai batzordeak antolatuta.

18:00 Apar festa, Baratzeko Bidea plazan. Erremonte jaialdia, Burunda frontoian.

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak antolatuta.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30 Preso, iheslari eta deportatuak etxera manifestazioa, Foru plazan.

Sarek antolatuta.

19:30-22:00 Dantzaldia Gauargi taldearekin, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.

21:15 Peñen iristea Foru plazara.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:00-23:30 Kalejira Goxo txarangarekin.

Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

22:30-23:30 Los del Rayo taldearen kontzertua, Foru plazan.

23:00 Kontzertuak: Burutik, Nikotina eta Tirri&Tery, Zubeztia plazako karpan.

Jai batzordeak antolatuta.

23:30 Tropa do Carallo taldearen kontzertua, Foru plazan.



### IRAILAK 17 Larunbata

09:30 Dianak, Haize Berriak bandarekin.

10:00-13:00 Txirrindularitza: Eskolarteko proba, Zumalakarregi plazan.

Burunda Txirrindularitza Elkarteak antolatuta.

11:30 Auzatea, La Encina kultur elkarteak antolatuta, Foru plazan.

13:00 Eguerdiko kontzertua: Haize Berriak banda, Foru plazan.

15:00 Herri bazkaria, Gozo Gozo taldeak girotua, Zelandi kiroldegian.

16:00-20:00 Peñen kafea, merienda eta kalejira.

Altsasuko Peñak antolatuta.

18:00 Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak: Zoro gaitezen ikuskizuna, Baratzeko Bidea plazan.



## Erraldoi berriak

Altsasuko bi festa garrantzitsuenetarikoa osatzen dute erraldoien segizioa: Santa Agedako kintoak eta Altsasuko Inauterietako pertsonaiak. 2019an mustu zituzten kinto mutil eta kinto neskaen irudiak, eta igandean Momotxorro eta Sorgina erraldoi berriei ongi etorria eman zioten, 1990ko irudiei agur esan ondoren. Aurkezpen ekitaldian Dantzarima dantza konpainiako dantzariak eta Altsasuko eta Etxarri Aranazko gaiteroek parte hartu zuten. Dantzariak eraman zituzten irudi berriak, eta konjuruen bidez bailitza, berriak agertu ziren. Erraldoiak eramaten dituen taldeak antolatu zuen ekitaldia. Erraldoi berriak Aitor Callejak egin ditu eta aurrekontua 11.500 eurokoa izan da.

Lehenengo emanaldia egiten ari zirela, Zumalakarregi plazan eta haizetearren ondorioz, momotxorro erraldoia lurrera erori zen. Ondoan zegoen haur batek korrika alde egin zuen eta zauri arinak izan zituen. Erraldoiaren egituraren kalteak izan dira, eta erraldoiak eramaten dituztenek ahalik eta azkarren konpontzen saiatuko direla esan dute.

Aurkezpenaren ondoren kalejira egin zuten, eta dagoeneko haien lehenengo irteraldia egin dute: Altsasuko festetako txupinazoaren ondoren kalejira egin zuten. Hurrengo kalejira irailaren 18an, igandean, festetako azken egunean izanen da, 11:00etatik 14:00etara.

**BiL TOKi**  
TABERNA • JATETXEA

Ongi pasa festetan!

Festetako menu berezia eta egunero bokatak barran

Telefono berria:  
948 562 348 • Altsasu

Ongi pasa festetan!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 487 317 • 990978279 • Gailuak 84208 11 • ALTSASU



19:30 Buruhandiak, Foru plazan.  
 19:30-22:00 Dantzaldia Ken Bat taldearekin, Foru plazan.  
 20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.  
 21:15 Peñen iristea Foru plazara.  
 22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.  
 22:00-23:15 *Sekreturik ez* Asier Kidamen magia ikuskizuna, lortia kultur gunean. Ogitartekoa eraman, eta freskagarriak doan.  
 Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta.  
 23:00 Kontzertuak:  
 Aurrez aurre, RPG Siete crew eta Kokonut taldeak, Zubeztia plazako karpan.  
 Jai batzordeak antolatuta.  
 23:30 Zetak taldearen kontzertua, Foru plazan.  
 Ondoren, Galker diskofesta  
 04:00ak arte.  
 00:00-02:00 Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara.  
 07:00 Mañaneo girotua.  
 Jai batzordeak antolatuta.

#### IRAILAK 18 Igandea

09:30 Dianak, Eztanda txarangarekin.  
 11:30 Auzatea, Amandrea elkarteak eskainia, Foru plazan.  
 11:30-14:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Altsasuko eta Etxarriko Gaiteroak lagunduta.



10:00-14:00 Munduko arrozak, Zumalakarregi plazan.



UTZITAKOIA

**ALTSASU** Altsasuko ospakizunetan zezensuzkoa eraman zuen Luis Comin Vielsa joan den urtean hil zen. Bere familiak, kuadrillak eta udalak bere lana omendu nahi izan zuten asteazkeneko zezensuzkoarekin.



**ALTSASU** Asteazkenean piztu zen festa Altsasun, eta txupinazoaren ondoren peñak kalejiran atera ziren. Horrela ibiliko dira igandera arte, kafean biltzen dira eta ondoren herritik kalejira egiten dute eta 20:00etan jaitsiera.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakana Harrera Harana harrera plataformak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

12:30 Beste herrialde batzuetatik datozen bizilagun berrien harrera ekitaldia, Zumalakarregi plazan. Udalak eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuak antolatuta.  
 13:00 Eguerdiko kontzertua: Trasteando taldea, Foru plazan.



16:00 Peñen kafea, merienda eta OstiKda elektrotxaranga. Peñek antolatuta.

18:00 Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketaren finala, Burunda frontoian.

Altsasuko Kirol Elkarteak eta Pilotajauku Elkarteak antolatuta.

18:00 Play Back lehiaketa, Baratzeko Bidea plazan.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-21:30 Kontzertua: Puro Relajo taldea, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.

21:15 Peñen iristea Foru plazara.

21:30 Bokatada, Zubeztia plazako karpan.

Jai batzordeak antolatuta.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

Ondoren, festen agurra, azken petardo sorta eta su artifizialen ikuskizuna, udaletxean. Ondoren, Altsasuko peñen kalejira.

**MAPFRE**  
**Ongi pasa festetan!**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM  
 jimazpr@mapfre.com · 948 563 354  
 San Juan 48 behekoa · Altsasu

**PORTUKO**  
 okidenaya


Ongi pasa festetan!

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
 Etxarri Aranatz: 948 460 988

**Txalaparta**  
 Taberna

Ongi pasa festetan!

948 467 070  
 Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**



Sakanan barna aurreikusi diren Abiadura Handiko Trenaren ibilbideak. Altsasun barnakoa aurreko Nafarroako Gobernuak proposatu zuen. Bestela, Lakuntza aldetik litzateke. ARTXIBOA

# Abiadura Handiko Trena Altsasuraino egitea adostu dute

Nafarroako eta Espainiako Gobernuek erabaki dute Zuasti-Altsasu zatiaren administrazio tramitazioarekin segitzea. Hala ere, Nafarroako tren laisterraren korridorea eta Euskal Autonomia Erkidegokoa non lotuko diren erabaki dago oraindik

SAKANA Nafarroako politikarien hizketa gaia izan da Abiadura Handiko Trena (AHT) agorrilean. Alderdi beraien iritziak plazaratu zituzten. Eta jarrerak berretsi zituzten Nafarroako Parlamentuko egoitzan joan den ostegunean. EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen AHT proiektuaren moratoria eta proiektua birpentsatzeko eskatu zuen. Navarra Sumak eta Geroa Baik Nafarroako eta EAeko korridoreak Ezkion bat egiteko eskaera berretsi zuten. PSN ere AHT egitasmoaren alde agertu zen, baina EAeko lotura non egin zehaztu gabe. Bitartean, Nafarroako AHT Gelditu! Elkarlanak salatu zuenez, agintari eta zenbait alderdiri "ez egitearen alternatiba burutik ere ez zaie pasatu. AHTaren lanekin jarraitzea arduragabea

eta etikoki gaitzesgarria izateaz gain, kriminala ere bada".

Iritzi truke horren ondoren, herenegun jakin zen Nafarroako eta Espainiako Gobernuak akordioa itxi zutela. Alderdi sozialistako bi kide dira adostasun horren erantzule: Bernardo Ziriza Perez Lurralde Kohezio kontseilaria eta Raquel Sanchez Jimenez Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda ministroa.

## Adostutakoa

Perezek eta Sanchezek Madrilen egindako bileran erabaki zuten "Prestazio Altuko Trenaren planifikazioan eta obren gauzatzean aurrera egitea Iruñerriaren eta Altsasu inguruaren artean". Biek jakinarazi zuten, "trenbidearen tarte hori euskal Yrekin azken loturaz aparte, independenteki tramitatuko da.

Beraz, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak Zuasti-Altsasu trenbide zatia tramitatzen jarraitu ahal izango du, informazio azterlana jendaurrean jartzeko egokituz eta, ondoren, dagokion eraikuntza proiektua idazteko lizitazioa eginez". Kontseilariak eta ministroak argitu zuten, akordioaren atzean bi administrazioen arteko hilabeteetako lana dago. Biek azpimarratu zuten, "hartutako erabakiari esker, Castejon eta Altsasu arteko abiadura handia behin-behinean martxan jarriko da, Euskal Y-aren azken

## ARALARREN GEOFISIKA ETA GEOTEKNIKA AZTERKETAK EGINDA DITUZTE

konexioa edozein izanda ere". Izan ere, adostutako zatian "trazadura bera da Gasteizko eta Ezkioko alternatibetarako". Bi puntu horietako batean lotuko litzateke Nafarroako korridorea EAekoarekin. Bata edo bestea egingen balitz, Sakanari eragingen lioke.

Herenegun aurreratutakoaren arabera, trenbide berriak "Zabalgaña mendilerroa zeharkatuko luke 1,2 kilometroko luzera duen tunel baten bidez. Tunel horren irteeran, egungo Castejon-Altsasu trenbidea gurutzatuko luke. Ondoren, trazadurak zuzen eta bihurtune baten bidez Satrustegi mendilerroaren magala zeharkatuko luke, %2ko beheranzko aldaparekin, 1,8 kilometroko eta 390 metroko luzera luketen bi tunel; haien artean 260 metroko zubibide bat legoke. Trazadura hego-ekialdetik ipar-ekialderako norabidean joanen litzake, bihurtune baten bidez, eta, ondoren, beheranzko hainbat malda luke. Tarte horretan, 450 metroko luzera eta 34 metroko altuera izango lukeen zubibide bat proiektatuko da Arakil ibaiaren gainean, baita 350 metroko tunel bat ere Urriazolaren aurrean.

## Ikerketa premia

Zirizak herenegun bi trenbide korridoreak Gasteizen lotzearen alde egin zuen: "alternatiba ia osorik gainazalean doalako, geoteknikoki asko aztertutako eremu bat delako. Izan ere, korri-

dore horren inguruan azpiegitura eta eraikin ugari daude (egungo trenbidea, autobiak eta abar). Horregatik, ezin da aurreikusi arazo geotekniko esanguratsurik. Baina, Ezkioko loturaren aukeran, daukagun arazo nagusia da ez dugula lur eremua ezagutzen", aitortu zuen.

Kontseilariak Belate eta Almandozeko tunelak eta Aralar konparatu zituen, mendi azpiko tunel batekin egingen bailitzateke Ezkioko konexioa. Zirizak esan zuenez, "Nafarroak 50 zundaketa baino gehiago egin ditu Belate eta Almandozeko tunelak bikoizteko. Tunel horiek 4 kilometroko luzera dute eta, gainera, aspaldidanik asko aztertutako lurretan daude. Baina Ezkioko alternatiba aztertzeke Aralarren 4 zundaketa baino ez dira egin, 55 kilometroko bi tunel igaroko diren eremu batean. Gainera, aurretik geoteknikoki aztertu gabea da". Zirizak Aralarren egindako azken zundaketen sakontasunaren berri ere eman zuen: "gehienez 95 metroko sakonerara iritsi dira, Ezkioko aukerako etorkizuneko tunelak zorutik 200 metrora behera leudeke gutxi gorabehera". Jakinarazi zuenez, "Nafarroako Gobernuko Herri Lanetako talde teknikoak kezkatuta daude orain arte egindako ikerketa geoteknikoa ez delako nahikoa Ezkioko alternatiban". Horregatik, prospekzio geofisikoak eta zundaketa geoteknikoak egingen dira.



Jardunaldietan parte hartu zutenetako batzuk Lekunberrin, sakandarrak barne. NAFARROAKO GOBERNUA

# Plazaola, nazioarteko lankidetzan segitzera

Europako Atlantiko aldeko hamar eskualdek sustatu duten TrailGazers programa aste honetan bukatu da. Teknologia eta esperientziak partekatu dituzte natura guneen eta bertako biztanleen ingurumen, ekonomia eta gizarte jasangarritasunerantz egiteko

ARAKIL / IRURTZUN

Hiru urteko elkarlanaren ondoren, Trail Gazers proiektuko hamar eskualdeetako ordezkariak hura despeditzeko elkartu ziren Larraungo udaletxean herenegun eta atzo. Donegal County Council (Irlanda), Viana do Castelo udalerrria (Portugal), Merthyr Tydfil County Borough Council (Erresuma Batua), Natura Babesteko Zuzendaritza Nagusia (Kanarietako Gobernua), Glasgow Caledonian University (Erresuma Batua) eta Nafarroa (Nafarroako Gobernua, Lursarea, Basque Tour eta Plazaola turismo partzuergo) izan dira egitasmoko bazkideak. Bukarako jardunaldian bazkide bakoitzak bere proiektuaren helburuak eta ondorioak azaldu zituen. Azken horiek guztiendako baliagarriak direla azaldu du Plazaola turismo partzuergoko presidente Aitor Larraza Carrerak. "Egitasmoa bukatu da, baina etorkizunean elkarlanean segitzeko asmoa dugu", argitu du.

Larrazak azaldu duenez, "bide berde edo natur bideak moduko egitura estatikoei dinamismoa nola eman aztertu dugu proiektuan. Horrekin batera, bide horiek tokiko ekonomian eragina izatea bilatu da. Ez dadila izan bakarrik turismoagatik etorritako pertsonendako zerbait, bertan bizi garenondako onura izan dezala". Nafarroako Gobernuako Proiektu Estrategikoetako zuzendari nagusia Ruben Goñi Urrozek azpimarratu du proiektu pilotua oso garrantzitsua dela Nafarroako hainbat naturgunetarako, bereziki Nafarroa Ezagutu Sarean daudenendako.

## Proiektuak

Europako proiektuak 2,5 milioi euroko aurrekontua zuen, Eskualde Garapeneko Europako Funtzak finantzatuta, eta Nafarroan Nasuvinsak. Egitasmo horren barruan eskualde bakoitzak bere bideari buruzko proiektuak egin ditu Plazaolako bide berdeari dagokionez, Larrazak

azaldu du hainbat lan egin direla. Alde batetik, Plazaolako bide berde guztiaren 360 graduko bideo grabazioa egin dute. "Hura Google Street View dago ikusgai. Jendeak pantaila bidez ibilbidea ezagutzeko aukera du. Jendea erakartzeko modu bat da, gustuko badu bertara etorri daiteke. Hori sustatzeko ibilbidean ikono diren dozena bat punturen berri ere ematen da". Bestetik, bidearen sustatzailek haren kudeaketa hobe egiteko, barne erabilerarako GIS tresna sortu dute. Haren osagarria da telefono mugikorrendako sortu duten aplikazioa. Haren bidez, bidean barna sarri ibiltzen direnek arduradunei intzidentzien berri emateko aukera dute.

**"NATUR BIDEAK MODUKO EGITURA ESTATIKOEI DINAMISMOA NOLA EMAN AZTERTU DUGU"**

Horretaz aparte, "bidearen Historia eta bere inguruan dagoen ondarearen berri emateko bideo txoak egin dira. Horiek bide berdea ezagutzera emateko erabiliko dira", argitu du Larrazak. Aldi berean, Plazaolaren inguruan dauden ekimen pribatuko eragileekin ere lanketa egin dute. Azkenik, Plazaolako bide berdean hiru kontagailu jarri dituzte. "Haien bidez badakigu zenbat jende pasatzen den, noiz eta nola. Datu horiek eskutan badakigu bidearen zein erabilera egiten den, eta egindako inbertsioaren itzulera zenbatekoa den ikertu dezakegu", azaldu du partzuergoko arduradunak.

Itxiera jardunaldian entzundakoagatik Plazaola bide berdea "ongi kokatua" dagoela azaldu du Larrazak. Eta arreta sortu dion beste proiektu baten inguruan galdetuta Irlandako Donegalgoa aipatu du: "eskualdean egin dituzten jarduerak buru osasunarekin lotu dituzte. Kirolaren kultura bulkatu nahi izan dute eta, horrela, buru osasuna sustatu". Beste proiektu batzuk turismoari begira egin direla azaldu du, "baina guztiak interesgarriak izan dira", laburbildu du Larrazak.

## Plazaolaren egungo egoera

Egun bide berdeak 68 km-ko luzera du. Baina hainbat zati ez daude erabilgarri. Izan ere, abenduko eta ilbeltzeko euriteek ibilbidearen hainbat zati hondatu eta kalte handiak sortu zituen. Larrazak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuak konponduko ditu zati horiek. Europako funtsekin finantzatuko du, baina Bruselak atzeratu egin du diru ematea. Garagartzaroen egitekoak ziren lanak badirudi udazkenean egingen dituztela".

Bestetik, Plazaolaren ibilbidea ez dago guztiz osatuta. Sarasa eta Iruñea arteko ibilbidea egokitzea falta da. Presidenteak azaldu duenez, lanak egiteko lurrak desjabetu dituzte dagoeneko. "Baina konpoketekin dagoen arazo bera dago. Europako funtsekin egin nahi dira lanak eta ez dira iristen. Dirua jasotzean hasiko dira", argitu du. Larrazak jakinarazi duenez, "ibilbidearen zati horretan egin beharreko lanak zailtasun gutxikoak dira. Hiri zati tarte asko ditu eta seinaleztapen lanak egin beharko dira horietan. Ez da obra luzea izanen".



Eraikiko den partzela, atzean.

## Alokairurako izanen diren etxebizitzak Arbizun

Udalak Nasuvinsarekin hitzarmena sinatu du San Joan bidea kalean etxebizitzak egiteko

ARBIZU

Arbizuar gazteak herrian bizi ahal izateko alokairuzko etxebizitzaren gaia "premiatzeko gaia" da udalarendako. Horregatik, Nasuvinsa enpresa publikoarekin hitzarmena sinatu du. Aldeek adostutakoaren arabera, udalak Nasuvinsari 407,1 m<sup>2</sup>-ko lursaila emanen dio San Joango bidea kalean. Enpresa publikoa arduratuko da han bost etxebizitza eraikitzeaz.

Arbizuko Udaletik zehaztu dutenez, eraikiko diren bost etxebizitza horiek alokatzeko izanen da. Haietan sartzeko lehenasuna arbizuarrek izanen dute. Haietan alokairuan bizitzeko epe muga jakin bat izanen da, "helburua baita gazteak independizatzeko aukera erraztea". Horregatik, bost etxe horien alokairua 35 urtetik beherako pertsonengana zuzenduko da. "Horrela, behin urte batzuk pasatuta, etxe hori utzi eta beste batek alokatu ahal izanen du. Alokairuak errotazio dinamika bat izanen du, ahalik eta gazte gehienek etxebizitza izateko aukera izan dezaten". Udaletik aurreratu dutenez, filosofia hori jasoko duen arau eta baldintza guztiak idatziz jaso eta etorkizunean publiko egingen ditu.



Maria Ordoñez, joan zen urteko Uharte Arakil-Beriain Km Bertikaleko irabazlea, errekorra apurtzekotan egon zen.

# Beriainen magalean eta puntan, bi hitzordu

**ATLETISMOA / MENDI LASTERKETAK** Larunbatean XVI. Ergoienako Bira jokatu da Lizarragan eta igandean 200 lasterkarik XIII. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalari ekingo diote. Bi probak 10:00etan abiatuko dira

**Maidar Betelu G.** LIZARRAGA / UHARTE A. Abuztuko geldialdiaren ondoren bueltan dira atletismo probak eta mendi lasterketak. Asteburuan hitzordu bikoitza dago Sakanan, modalitate bakoitzetik proba bana erabakiko baita.

## Ergoienako Bira, bueltan

Ergoienako Udalak Lasa Kiro-laken laguntzarekin antolatutako XVI. Ergoienako Bira larunbatean abiatuko da, 10:00etan, Lizarragako frontoi paretik. Ordu bat lehenago, 9:00etan hasiko da izena ematea. Lasterketa, aldi berean, Unanuko korrikalari handia zen Joxe Mari Merceroen 2. Saria izango da. Bukaeran auzatea izanen da eta sari ematea, trofeoak eta kattola ezagunak. Festak Ergoienako Eguneko herri bazkariarekin jarraituko du.

Ergoienako Bira 8,5 kilometroko lasterketa oso gorabeheratsua da. Lizarragatik abiatuko da proba, Unanura helduko da, handik Dorraoraino joko du, eta buelta hartuta Unanura sartuko

da, Lizarragan despeditzeko. Maldak nonahi, erritmoa topatzea ia ezinezkoa da eta lasterketa zaila da.

Pandemiagatik azken bi urteetan ez da Ergoienako Birarik jokatu. Azken edizioa 2019koa izan zen, hain zuzen ere Joxe Mari Mercero zendu zen urtean, eta lasterketa haren aldeko omenaldia bilakatu zen. Horregatik, maila handiko korrikalariak hartu zuten parte eta Antonio Etxeberrria (33:12) eta Izaskun Beunza (38:52) izan ziren irabazleak, ederki sufritu eta gero.

## Uharte Arakilen, izen handiak

Beriainek erakartzen du, eta, horren isla, Aralar Mendi elkar-teak XIII. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalerako zehaztu zuten 200 partaideen topea bete egin da. Eskola paretik (471 m) abiatuko da proba, igandean, 10:00etan, eta Beriainera (1.494 m) iristea da erronka. 5 km-ko distantzian 1.023 metroko desnibel positibo dago, ikusgarria.

Joan zen urtean Mikel Beunza (41:35) eta Maria Ordoñez (48:51) gailendu ziren. Ez zuten 2015ean Aitor Osak (39:54) eta 2019an Ainhoa Sanzek lortutako errekorra (47:54) gainditu, Ordoñezek oso gutxiatik. Aurten, errekorra gainditzen duenak 300 euroko saria jasoko du. Guztira, 28 korrikalari sakandarrek osatu zuten proba, eta Igor Arrieta uhartearra –bizikletan bezain ongi moldatzen da korrika– eta Marina Zabala lakuntzarra (1:02:11) izan ziren lehen sakan-darrak.

## Olazti eta Etxarri, ate joka

Uharte Arakilgo lasterketari bi urte ospatu gabe bueltan den XIV. Olatzagutia-Urba mendi

**"JOAN ZEN URTEKO IRABAZLEAK, BEUNZA ETA ORDOÑEZ, DAUDE FAVORITOEN ARTEAN"**  
JUANJO GOIKOETXEA



## "Errekorra apurtzera etorriko da"

**JUANJO GOIKOETXEA**  
BERASATEGI ARALAR MENDI

## Partaidetza kopurua bete duzue.

Aurten ez nuen espero, proba askotan kosta egiten ari baita. Oso pozik gaude, horrek zerbait esan nahi duelako.

## Zeintzuk izango dira favoritoak?

Joan zen urteko irabazleak, Mikel Beunza eta Maria Ordoñez, Iñigo Macias... Lehia egongo da, eta beti sorpresaren bat izaten da. Aurten 25 sakandar inguruk eman dute izena. Polita da bailarako proban bertako jendeak parte hartzea.

## Zer dio eguraldi iragarpenak?

Ez dute euria iragartzen eta 24 graduko tenperatura aurreikusten dute, Beriainen 18-20 artekoa. Oso ona.

## Errekorrak apurtuko al dira?

Gizonezkoetan zaila ikusten dut; emakumezkoetan egingarria. Maria Ordoñez erronka horrekin etorriko da.

lasterketak hartuko dio lekukoa, urriaren 1ean 10:30ean abiatuko dena (15,23 km eta 900 m desnibel +). Sutegik haurrendako lasterketak antolatuko ditu ere. Izena ematea zabalik dago Herrikrosa webgunean. Egun bat berandua, urriaren 2an, Udaberri elkar-teak antolatutako 47. Mendira Joan Etorria abiatuko da Etxarri Aranazko plazatik 11:00etan, Hartzabalgo Maiatzera igoko dena (10 km, 557 m desnibel +). Izena ematea Kronoak webgunean egin daiteke.

## FUTBOL PREFERENTEA

1. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Aibarés	1-0
Lagun Artea - Amigo	1-2
Aurrera - Etxarri Aranatz	4-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Aurrera (Leitza)	3
8 Altsasu	3
11 Lagun Artea	0
17 Etxarri Aranatz	0

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN, IRAILAK 17	
16:00 Amigo - Altsasu ( <i>Amigo</i> )	
16:00 Beriain - Lagun Artea ( <i>Beriain</i> )	
17:00 Etxarri - Beti Casedano ( <i>San Donato</i> )	

## Altsasuk ongi ekin dio maila berriari

30 urte ondoren Preferente mailan bueltan da Altsasu. Lehen garaipena eskutan, Amigo izango dute aurkari. Ea festetako ajeak ez dien gehiegi kaltetzen.

## Etxarri, lehen partida San Donaton

Leitzako Aurrera taldearen kontrako jipoia ahaztuta, bihar zaleen aurrean lehendabiziko partida du jokoan Etxarri Beti Casedanoren kontra.

## Lagun Arteak Beriainen jokatu du

Lakuntzako aurtengo taldea oso gaztea da, ia guztiz eraberritutako, esperientzia hartu beharko duena. Lehen lehia galdu ondoren bihar Beriain dute aurkari.

## Altsasu Erregionala, hastear

Asteburuan hasiko da Erregional Mailako 2022/2023 denboraldia. Altsasu B taldea laugarren multzoan lehiatuko da. Larunbatean, 16:30ean Lekunberriko Beti Kozkor B taldea hartuko du Dantzalekun.



## Gala, Altsasun

**MENDIA** Nafarroak lehenengoz hartuko du Euskal Mendizaletasunaren Gala, urriaren 14an. Omenaldiak, Pyrenaica sariak eta beste izango dira.





UTZITAKOA

## Altsasuarrak igandeko finalean

**PILOTA** 51. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko finalak igandean jokatu dira, 18:00etan. Maila mistoan, Urko Lanza altsasuarrak eta Amaia Arrastiak Aizane Ibarrola eta Oier Mitxelena altsasuarra izango dituzte aurkari, eta eliteen mailan Fernandezek eta Erlek Egiguren eta Lizeaga. Gaur, ostirala, 18:00etan erremonte jaialdia hartuko du Burundak.



UTZITAKOA

## Euskadiko gazteen txapeladuna

**AIZKORA** Aritz Oiarbide Erdozia etxarriarrak Muruetan jokatuak Euskadiko Aizkolari Gazteen Txapelketako finala irabazi zuen (21:21), Igoien Pikabeari (25:48) eta Manex Izagirrerri (29:14) erraz gailenduta. "Uste baino gogorrago egin zitzaidan proba, beroagatik. Beroa izugarria zen" azaldu du, garaipenarekin "oso pozik" dagoela nabarmenduz.

## Europako txapeladuna

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xotak Lehen Mailako liga hasi berritan lehen saria jaso du, bere jokalaria Ion Cerviño Pueyo irurtzundarra 19 urtez azpiko Europako Areto Futboleko txapeladuna baita. Cerviñok Espainiako selekzioarekin jokatu zuen finala, Portugalen kontra, eta luzapenean irabazi zuten kopa preziatua, Ionen gol bat tarteko.



ESPAINIAKO ARETO FUTBOL SELEKZIOA

# Altsasu Probarik internazionalena

**TXIRRINDULARITZA** Yanne Dorenbos herbeherearra gailendu zen Altsasuko esprint estuan. Ailetz Lasa bosgarren, Mulu Hailemichael zortzigarren eta Iker Mintegi hamalagarren izan ziren. Miguel Indurainek eta Abraham Olanok banatu zituzten sariak

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Txirrindularitza munduko izarrak afizionatuen 93. Altsasu Proban bildu ziren atzo, eta guztiak bere 26. Vueltan lan egitetik etorri berri zen Juan Mari Guajardo speaker altsasuarraren mikrofono aurretik pasa ziren. Miguel Indurain eta Abraham Olano txirrindulari ohiak ziren ezagunenak -zaletuek argazkiak atera zituzten beraiekin-, eta horretaz gain, Vueltatik itzuli berri diren Euskaltel-Euskadiko kirol zuzendari Jorge Azanza -Vueltaren ospakizuna Altsasuko festetan egin zuen, bezperan, bere lantalde guztiarekin-, Israel Start Up Nation taldeko kirol zuzendari Oscar Guerrero, Hegoi Martinez txirrindulari ohia, lasterketan parte hartu zuen Mulu Hailemichaelen aitapontekoa, Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko teknikariak eta beste gerturatu ziren. Guztiek 93. Altsasuko Probaz ederki gozatu zuten. Aurten, nabarmentzekoa izan zen nazioarte mailako txirrindulariak izan zirela: Taiwan, Colombia, Costa Rica, Frantzia, Herbehereak...

**Mintegiren saiakera** Hasieratik tropeltxo batek hartu zuen aurrea eta etengabeko erasoak izan ziren, eta hortik, azke-



Sariak guztien argazkia. Mulu Hailemichael, urdinez, eta Ailetz Lasa, eskuinean.

nean, 15 txirrindulariz osatutako taldea gelditu zen buruan. Azken saiakera Iker Mintegi altsasuarrak (Laboral Kutxa) egin zuen, helmugara bidean Urdiain pasata erasoajo baitzuen. Zoritxarrez, tropeltxoak irentsi zuen eta esprint estu batek erabaki zuen irabazlea Yanne Dorenbos herbeherearra zela. Xabier Berasategiren (Laboral Kutxa) aurretik. "Oso pozik nago irabazteagatik. Gainera, gaur nire urtebetetzea da -22 urte-, eta Indurain eta Olano bezalako txapeladun handiek saria eman

izana zoragarria izan da" adierazi zuen Dorenbos, txapela jantzi berri.

Sakandarren artean, Ailetz Lasa (Laboral Kutxa) bosgarren sailkatu zen, Etxarrin bizi den Mulu Hailemichael etiopiarra (Rural Kutxa-Seguros RGA) zortzigarren, eta Iker Mintegi (Laboral Kutxa) hamalagarren. Altsasuko Proba Euskaldun Txapelketarako azkenareko lasterketa puntuagarria zen -larunbatean jokatu da azken proba, Oñatin-, eta Mulu Hailemichael lek ziurtatua du garaipena.

## Emakumeak animatu ziren

**SASKIBALOIA** CBASK saskibaloit taldeak antolatutako Streetball Altsasu 22 txapelketan 30 jokalaria inguruk hartu zuten parte. Emakumezkoak animatu zirenez, antolatzaileak "oso kontentu" daude. Lagunarteko torneoan giro ederra egon zen, guztiek elkarrekin bazkaldu zuten eta saskibaloijokariak "oso gustura" aritu ziren. Eraitza gutxienekoa da.



CBASK



Pablo Urtasun eta Juanjo Oroz, Kern Pharmako kirol zuzendariak, autoan. UTZITAKOA

# "Etapa zailak izan ditugu, baina Vuelta ona egin dugula uste dut"

**PABLO URTASUN PEREZ** KERN PHARMA TALDEKO KIROL ZUZENDARIA

**TXIRRINDULARITZA** Urdiaindarrak Kern Pharma taldea gidatu du euren lehen Espainiako Vueltan, ilusio handiz, eta taldea indartu, sendotu eta hobetu dela uste du

**Maidar Betelu Ganboa** URDIAIN

Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindularia zela Espainiako Vuelta bitan osatu zuen Pablo Urtasun Perezek, 2010. eta 2013. urteetan. Aurten, kirol zuzendari gisa bere lehen Vuelta egin du, Kern Pharma taldearekin. Gustura ibili da, eta dagoeneko burua Kroazian du, irailaren 27tik urriaren 2ra bitartean jokatu den CRO Race lasterketan talde farmazeutikoa gidatuko baitu. **Espainiako Vueltan bi aldiz aritu zara txirrindulari, eta aurten kirol**

**zuzendari gisa mustu zara. Eszenatoki berbera, baina lanbide ezberdina.**

Erabat ezberdina da. Txirrindularia zarenean buruari buelta gutxi ematen dizkiozu: etapa jokatu eta atsedean hartu. Kirol

**"COVIDARENGATIK HIRU TXIRRINDULARI GALDU GENITUEN ETA EGUN ZAILAK PASA GENITUEN"**

zuzendari gisa, etapa gidatu behar duzu eta etapa bukatu eta berehala hasten dira hurrengo etapako kezka eta planifikazio guztiak argitzen. Lan ezberdina da, bat fisikoagoa eta bestea burua gehiago erabiltzekoa. **Txirrindulariak bai, baina zuek ere lehortuta bukatuko duzue.**

Itzuli handi hauetako batean hilabete bat pasatzen duzu lanean. Autoa gidatzen ordu asko dira, eta lasterketan beti tentsio gehiago egoten da. Handik hona bueltak, hoteletik hotelera, ohe

ezberdinetan lo egiten. Egia da luze egiten dela, baina gustura ibili gara.

**Nola moldatzen zarete gidatzen zaudetela txirrindulariei aginduak eman, lasterketako informazio edo irudiak jarraitu, bazkaldu eta bestelakoak aldi berean egiteko? Baldintza horietan gidatzen ikasteko masterclassen bat jasotzen al duzue?**

(Kar, kar...). Gehienak tropelean ibili gara aurretik, eta hori ere nabaritzen da. Lasterketetan urduritasun asko egoten da, abidura handia, eta gauza asko egin behar ditugu gidatzen dugun bitartean: mapa begiratu, telebista begiratu, bazkaldu... dena batera. Gauza asko dira, alboan txirrindulariak, motorrak, autoak eta beste ditugulako. Gertatu ahal zenerako ez da ezer gutxi gertatzen. Ez da erraza izaten, baina mundu honetan gabiltzanok gustura ibiltzen gara.

**Kern Pharma talde berria da, hirugarren denboraldia baitu. Aurten Espainiako Vueltako gonbidapen preziatuetako bat jasotzea, berez, handia izan da zuendako. Hori nahikoa ez, eta Vueltan maila polita eman duzue. Parra 26. sailkatu da, eta Garciak, Berradek, epak eta Galvanek ere lasterketa bukatzea lortu dute.**

Vueltan ongi hasi ginen. Holandako etapa horiek, taldekako erlojupekoa... lehenengo astean lan ona egin genuen, baina atsedean egunean hiru txirrindulari galdu genituen COVID-19 birusarengatik, eta bizpahiru egun zail pasa behar izan genituen. Zorionez, txirrindulariek egoerari buelta eman zioten eta Vueltan bukaera oso ona egin zuten, batez ere Garciak eta Parrak, azkeneko bi etapatan maila handia eman zutelako. Vuelta nahiko ona ateratzen zaigula uste dut.

**Askok Igor Arrieta Lizarraga zuen txirrindulari uharte arakildarra Espainiako Vueltan kokatzen zuten. Berarekin hitz egin genuen, eta berak aurten Etorkizuneko Tourra egin nahi zuen. Eta horrela erabaki genuen, ezin baituzu txirrindulari bat behartu. Etorkizuneko Tourra lasterketa oso polita da, maila handikoa ere**

**"TXIRRINDULARIEK EGOERARI BUELTA EMAN ZIOTEN ETA VUELTA BUKAERA OSO ONA EGIN ZUTEN"**

bai. Tamalez, etapa zailenak gainditu eta gero, gaixotu zen, hain justu berarendako aproposak ziren etapak iritsi zirenean. Apustua ez zen oso ongi aterata, baina datorren urtean ikusiko dugu Vueltako gonbidapena jasotzen dugun eta bera egoten den. Orain Eslovakiako Tourrean ari da parte hartzen.

**Kern Pharmako manager eta kirol zuzendari Juanjo Oroz adierazi duenez, "proba honek taldea hobetzea ekarri du. Hori zen bilatzen genuena, eta Vueltak eskatzen duen mailan egon gara. Harro egoteko moduan egon behar dugu".**

Bai, txirrindulari gazte asko dauzkagu, eta egia da itzuli luze batek indartsuago eta psikologikoki sendago egiten dituela. Sufritzeko momentu asko izaten dira, eta une horiek gaintzea eta etapa txarrei aurre egiteak txirrindulariak hobetu egiten ditu.

**UCI Pro Team mailako taldea zarete, tropelaren bigarren maila. UCI Pro Tour edo lehen mailako taldeen ondoan egotea nolako da? Tropelean mailakatea nabari egiten da edo guztiak berdina zarete?**

Tropelean denok berdinak izaten saiatzen gara. Aurrekontu handiko taldeak daude, eta hoteletan, materialean eta dituzten bitartekoetan nabaritzen da. Azpiegitura ikusgarriak dauzkate, eta hori ikusten da, baina etapari irteera ematen zaionean diferentzia horiek horrenbeste ez nabaritzen saiatzen gara. Ez da erraza, maila handiko txirrindulariak dituztelako, baina saiatzen gara. **Zuen txirrindulariek Vuelta nola bizi izan dute? Beraiendako sekulakoa izango zen.**

Bai. Azken etapen argi ikusten zen jende guztia pozik zegoela. Ondo ateratzen zaionari ondo ateratzen zaionari eta zaizki ateratzen zaionari bukatu egin delako. Egia da ilusio handiz aritu direla, eta asko ikasi dutela uste dut. Esaterako, hiru asteko lasterketa batean ezin duzu egunero topera joan, batzuetan indarrak gorde behar dira, eta hori ere kudeatzen ikasi beharra dago. Gure txirrindulariendako lehen itzuli handia zen, eta uste dut lan hori eta beste batzuk egiten ikasi dutela. **Zuek, teknikari zareten aldetik, ikasi al duzue?**

Beti ikusten dituzu gauza interesgarriak. Adibidez, talde handi horiek sukaldariekin bidaiatzen dute, edo material konkretua dute, edo bestelakoak. Aurrekon-

tuarekin asko aldatzen da egoera. Beraz, hobetu daitezkeen gauzak daude, baina ikusiko dugu, pausoz pauso joan beharra dago.

**Vuelta berezia izan da, mugimendu askokoa. Azkenean Remco Evano-poelek irabazi zuen, Enric Masen eta Juan Aiusoren aurretik. Primoz Roglicen erorikoak lasterketa baldintzatu zuen. Finean, gauza asko gertatu ziren.**

Bai, lasterketa polita izan da, ikusgarritasuna izan du. Ezzegoen faborito argi bat. Roglic aipatzen zen, aurretik Vuelta hirutan irabazi duelako, baina Tourreko erorketarengatik bere prestakuntza ez zen onena izan. Hala ere, egunetik egunera geroz eta hobe ikusten zitzaien, eta Remcorekin borroka polita aurreikusten zen, baina erorikoarengatik erretiratu beharra izan zuen. Vuelta interesgarria izan da.

**Txirrindulari zinen garaitik jende asko ezagutuko duzu tropelean. Aspaldiko ezagunekin egoteko aukera izan zenuen edo ezagutzen zenuen mundua goitik behera aldatu da?**

Jende berria zegoen, baina aspaldiko jende askok mundu horretan jarraitzen du: mekanikoak, masajistak, zuzendariak... txirrindulariak ez horrenbeste, erretiratu joan direlako, baina jende asko ezagutzen nuen. Gehienbat etapak hasi baino lehen genuen ezagunekin egoteko aukera. Etapa hasieran talde guztien aurkezpena egiten da eta denborarekin joaten ginen. Hor izaten genuen baterekin eta bestearekin hitz egiteko edo kaferen bat hartzeko tartea.

**Jorge Azanza altsasuarrekin, Euskalteleko zure taldekide ohi eta Euskaltel-Euskadiko egungo kirol zuzendariarekin egoteko aukera izan zenuen?**

Bai, Jorge Vueltan ibili zen ere. Egun batzuetan hotel berberetan egon ginen bi taldeak.

**Zure garaiko txirrindulari horietako bat Alejandro Valverde izango zen. Aurten erretiroa hartuko dute berak eta Vincenzo Nibalik, eta omenaldi polita egin zitzaion. Hala erretiratzea polita izango da.**

Bai, txirrindulari guztiek ez dute aukera hori izaten, baina oso polita izan zela esan beharra dago. Biak Espainiako Vueltako irabazleak izan dira, eta ederra izan zen.

**Vueltan hilabete bat egon zarete etxetik kanpo. Hori familiaren egunerokotasunarekin uztartzea zaila izango da eta zuen lanbidearen alde**



Pablo Urtaun eta taldekideak Espainiako Vueltaren irteeran, Herbehereetan. UTZITAKOIA

**negatiboa. Gainera, zuretako urte hau oso gogorra izan da, aita galdu duzulako.**

Bai, egia esan. Itzuli luzeetan gehiago nabaritzen da eta tarteka gogorra egiten da, baina gaur egun komunikazioak asko hobetu dira eta ia egunero egiten ditugu bideodeiak etxekoekin. Duela urte batzuk ez genituen etxekoak ikusten eta ia-ia eurekin ez genuen hitz egiten ere. Orain, egunero ikusten dituzu, mugikorrean edo ordenagailuan bada ere. Aurten Vuelta etxetik gertu egon denez, bisitan etorri dira eta eskertzen da, hilabete hori laburragoa egiten delako.

**Orain arteko denboraldiaren balantzea nolako da? Espero zenutena, hobe...**

Nik uste dut ongi atera dela. Espainiako Txapelketa bat irabazi dugu Raul Garciarekin, World Tourreko La Route d'Occitanie-ko etapa bat, Roger Adriárekin, eta bestelako podiumak, tartean Igor Arrietak. Txirrindulariek, oro har, maila ona eman dute, baina pozgarriena da txirrindulariak hazten ikusten ditugula, hobetzen, urtetik urtera maila gehiago dutela, eta hori da bidea. Lasterketak irabazi edo ez, ez da hain garrantzitsua, beraiek hazten

**"GURE HELBURU NAGUSIA GURE TXIRRINDULARIAK TALDEAN MANTENTZEA DA"**

badira hori iritsiko delako. Beraien maila handitzen joaten dela ikustea, hori da garrantzitsua. **UCI Pro Tour mailara pasatzea zaila izango da. Hasteko, gutxieneko aurrekontu bat izan beharko dute taldeek.**

Bai, auditoria modukoak egoten dira, aurrekontuak eta babesle-tza kontratuak aztertu, eta auditoria horiek esaten dutenaren arabera lizentzia jasotzeko aukera izaten dute taldeek, ala ez. Orain hasi dira lizentziak hiru urtetik behin ematen. Aurten berriz ere emango dituzte, eta, beraz, datorren hiru urteetan ez dira aldatuko.

**Kern Pharmak lehen mailara egiteko saltoa noiz ikusiko zenukete egingarria?**

Ez da erraza esaten. UCI Pro Tour mailan egoteko gutxi gorabehera 20 milioi euroko aurrekontua behar da, eta hori lortzea ez da erraza. Beraz, pausoz pauso ikusiko dugu. Momentuz hurrengo hiru urteak izango ditugu handitzen jarraitzeko eta orduan ikusiko dugu.

**Denboraldia ez da oraindik bukatu. Zein da zure hurrengo lasterketa? Hurrengo astean Kern Pharmako talde batekin Kroaziara joango naiz CRO Race lasterketan**

**"POLITENA EUSKAL AFIZIOAREN GERTUTASUNA ETA BEROTASUNA SENTITZEA IZAN DA"**

parte hartzera, eta beste talde bat Italiako Klasikoak egitera joango da. Nik uste dut aurten Kroaziako probekin bukatuko dudala denboraldia.

**Ez dakit kirol zuzendari batendako denboraldia noizbait bukatzen ote den. Oporrak hartuko al dituzu?**

Denboraldi bat bukatzen denerrako hurrengoan pentsatzen eta plangintza egiten hasten gara, baina CRO Race bukatutakoan aste pare bat lasaigo pasatuko ditut. Hortik aurrera denboraldi berriari ekingo diogu, azaroan talde kontzentrazioren bat egingo dugu eta gutxika denboraldi berriari begira jarriko gara.

**Datorren denboraldirako zein da Kern Pharma taldearen helburu nagusia?**

Gure txirrindulari guztiak taldean jarraitzea, hori da gure helburu nagusia, eta ez da erraza izango, World Tour taldeak ondo ibiltzen diren txirrindularien atzetik ibiltzen baitira. Deitzen badiete, zaila izango da eurak eustea. Baina gure txirrindulariek jarraitzea, hori da xedea, beraiekin handitzea eta taldea eustea, horri esker taldea hobea izango delako. Eta lasterketei dagokionez, Espainiako Vueltako gonbidapena lortzea eta Euskal Herriko Itzulian lan ona egitea.

**Zuen babeslea, Kern Pharma enpresa farmazeutikoa, kontentu dago Vueltan egin duzuen lanarekin?**

Madrilgo bi etapatan enpresako zuzendaria gurekin egon zen autoan eta oso gustura ibili zen. Gainera, Raul Garcia eta Urko Berrade ihesaldian sartu ziren eta maila handia eman zuten etapa horietan, eta zuzendaria oso pozik bueltatu zen. Espero dugu kontentu egotea eta taldea babesten jarraitzea.

**Zure lehendabiziko Vuelta zuzendari gisa. Zein sentsazioekin gelditu zara?**

Sentsazio onarekin. Gu gustura ibili gara. Pena handia izan genuen hiru txirrindulari galdu genituelako, baina taldearendako lehenengo Vuelta zen, ilusio handiz ibili ginen eta uste dut ondo egin genuela. Bestalde, euskal afizioaren gertutasuna, euskal zaleek txirrindularitza nola bizi duten eta nola jarraitzen duten ikustea eta sentitzea, hori izan da politena. Txirrindulariek ere jendearen berotasuna eta animo horiek sentitzen dituzte. Txirrindulari gehienek euskal afizioarekin harreman oso polita dute.

## Txirrindulari profesionalak lanean



Lesio gogorra gainditu du.

### Josu Etxeberriaren buelta

Iturmendiarrak eroriko larria izan zuen ekainean Ronde de Loisen eta ebakuntza egin behar izan zioten, lau ornoen haustura izan zuelako. Lan izugarria egin eta gero bueltan da, Luxemburgeko Tourrean.



Igor Arrieta. LUIS ANGEL GOMEZ

### Igor Arrieta, Eslovakian

Kern Pharmako uharte arakildarrak gainditu ditu Etorkizuneko Tourrean izan zituen osasun arazoak. Asteartetik Eslovakiako Tourrean parte hartzen ari da. Lasterketa larunbatean despidituko da, eta etapa gogorrak dituzte aurretik.



Izagirre eta Erbiti. MOVISTAR

### Movistar, azken txanpa

Goi mailari eusteko borrokan puntuatu beharrek bulkatu zuten Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre Vueltan aritu ordez beste probatan aritzera. Lehena Toscanako Giroan eta bigarrena Grand Prix Wallonien dabilta.

## AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 16

**IZURDIAGA Kontzertua.**  
19:00etan, plazan.

## LARUNBATA 17

**LIZARRAGA Ergoienako XVI. Bira eta eguna.**

J. M. Merceroren Oroimenezko bigarren saria.  
09:00 Lasterketan izena ematea.  
10:00 Haurren lasterketa.  
10:15 Helduen lasterketa.  
14:30 Herri bazkaria: haurra.  
14:45 Herri bazkaria: helduak.

## IGANDEA 18

**UHARTE ARAKIL Mendi lasterketa.**  
Km bertikala.  
09:30ean, plazatik.

**ALTSASU Elkarretaratzea.**  
Euskal preso eta iheslariak etxera.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 19

**ALTSASU Elkarretaratzea.**



**IRURTZUN Nueve foto poema erakusketa.**  
Urriaren 9ra arte, Pikuxar tabernan.

Pentsio duinen alde.  
12:00etan, udaletxearen aurrean.

**IRURTZUN Hitzaldia.**  
Nafarroako mugikortasun elektrikoa sustatzeko agenda.  
16:00etan, Bidebiden.

## ASTEAZKENA 21

**IRURTZUN Irakurle taldea.**  
Beñat Sarasola idazlearen *Deklaratzerik ez* liburua izanen dute mintzagai.  
19:00etan, Pikuxarren.

## OSTEGUNA 22

**IRURTZUN Egileekin topaketa.**  
Jose Luis Córdón eta Nerea Zubikoa *Nueve* erakusketaren egileen bisita gidatua.  
18:30ean, Pikuxarren.

**OLATZAGUTIA Film dokumentala.**  
*No somos nada* filmaren emanaldia.  
19:00etan, kultur etxean.

## OSTIRALA 23

**OLATZAGUTIA Kontzertua.**  
Jorge Sanchez kantautorearen *Silvio en ti... y en mi* emanaldia.  
19:00etan, San Migel plazan (eurriarekin kultur etxean).

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

*Padre no hay más que uno 3* gaurkotasuneko filma  
Osteguna 22 19:00  
Ostirala 23 19:30

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## ALOKATU

**Bikote bat bi txakurrekin bizitzeko etxe baten bila:** Sakanan (Arbizu inguruan bada hobe) alokatzeko pisu edo etxe baten bila gabiltza, gehienez 400 euro ordaindu ditzakegu orain, denborarekin erosteko aukera nahiko genuke. Deitu 699 173 735 / 696 629 605 telefonotara, milesker.

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Irurtzango Pikuxar tabernak asteburuetarako bi langile behar ditu:** sukaldari laguntzailea asteburuetarako (esperientzia eta euskara baloratuko dira) eta asteburuetarako zerbitzaria (euskara ezinbestekoa, esperientzia baloratuko da). Interesatuak bidali CVa [pikutaberna@gmail.com](mailto:pikutaberna@gmail.com) helbide elektronikora.

## IKASTAROKA

**Arakilgo ikastaro eskaintza:** Yoga Ihabarren, astelehenetan eta ostegunetan, bi txandatan: 17:00 - 18:30 / 18:30 - 20:00 (Urriaren 4tik hasita urtarrilaren 30era arte), mantenimendu soinketa (egunak eta ordutegia taldean zehazteko), Eskulanak (astelehenetan 10:30 - 12:30), sasoiatsu bizi +60 (asteazkenean 10:30-12:00), mugikorra eta ordenagailua +60 (ostegunetan 11:00-12:30), oinarriko kompetentzia digitalak (astelehenerik ostiralera 16:00-20:30), sukaldaritza ibiltaria (ostiralean bailarako elkartean). Izena emateko epea zabalik 634 584 226 - 948 500 101 telefonotara deituz, [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) - [info@arakil.net](mailto:info@arakil.net) postetara idatziz, irailaren 29ra arte.

**Euskarazko ahozko jarduna Nafarroako gazteboen artean Mintegian izen ematea zabalik:** irailaren 28an Iruñeko Kondestablearen jauregian burutuko den mintegian izena emateko epea irailaren 26an amaitzen da. Mintegia Iruñeko Komunikabideak Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen ekimenez antolatua da. Goiz osoko egitaraua du. Informazioa eta izen ematea Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritzan, 948 223 471 tfnoan edo [nafarroordez@euskaltzaindia.eus](mailto:nafarroordez@euskaltzaindia.eus) emailera idatziz.

## LEHIAKETA

**Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa:** Egileek lan bana aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librean izanen dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabek. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso terro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 taminakoa, tarte bikoitza). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu

[www.pamplonacultura.es](http://www.pamplonacultura.es) web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

## OHARRAK

**Altsasun, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko 2022ko zerga:** borondatez ordaintzeko epea irailaren 24an bukatuko da helbideratu gabeko ordainagiriak La Caixako edozein banku bulegotan ordain daitezke ordainagiria aurkeztuta.

**Etzarrri Aranatzaren 2022ko 1. Seihiabeteko uraren erreziokoak:** Helbideraketa berriak edo aldatetako eskatzeko azkeneko eguna irailaren 21a izango da. Ordaintzeko borondatezko epea irailaren 28an bukatuko da.

**Olaztikoko Gaztetxokoan izen emateko epea zabalik:** Zerbitzua 12-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, Olaztin errodatutakoek lehentasuna izango dute. Urriaren 14tik maiatzaren 20ra zabalik egongo da: ostiralean 18:30-21:00, larunbatetan 17:00-21:30 eta igandetan 17:00-21:00. Irailaren 23ra arte udal bulegoetan, fitxa osatuz edo [kultura@olazti.com](mailto:kultura@olazti.com) helbidera idatziz eta diziplina neurrien araudia onartzearen dokumentua sinatu behar da. Eskabideak baieztatu ondoren eta Gaztetxoko zerbitzua hasi aurretik ordainduko dira tasak.

**Olaztikoko ludotekan izen emateko epea zabalik:** irailaren 23ra arte udal bulegoan, izena emateko fitxa osatuz edo [kultura@olazti.com](mailto:kultura@olazti.com) helbidera bidaliz. Bi talde egingo dira 1. taldea 2015etik 2018ra jaiotako haurren dako (asteazkenean 15:00-16:00 psikomotritzate dantzari aplikatuta), eta 2. taldea 2014an eta aurreko urteetan jaiotakoendako (astelehenetan 16:30-18:00 eta asteazkenean 16:00-17:00 dantza modernoaren hastapenak, ostegunetan 16:30-18:00), urriaren 10ean irekiko ditu ateak.

**Odol emateko Olaztin:** irailaren 20ean, 17:00etatik 20:30ra, Osasun etxean.

**Altsasuko Txantxari ludotekan izena emateko epea zabalik:** 2014-2010 urte bitartekoak astelehen, asteazkena eta ostirala 15:30-16:45, astearte eta ostegunetan 18:30-20:00 orduetegi artean aukeratzeko aukera, 2015-2018 haurrek astelehenetik ostiralera 17:00-18:15 aurkeratzeko, eta 2022-2019 urte bitartean jaiotako haurrek doan heldu batek lagunduta (astelehena, asteazkena eta ostiralean 18:30-20:00). 4-12 urte bitarteko izen-emateak astean saio bat edo bi izango dira gehienez eta urteko kuota 5 euro izango dira. Plaza mugatuak direnez, onartzeko, inskripzioaren ordena kontuan hartuko da. Izen ematea eta ordainketa irailaren 28ra arte 948012012 telefonora deituz, Informazio gehiago [ludoteka@altsasu.net](mailto:ludoteka@altsasu.net) edo 948 467 471 telefonon.

**Altsasuko Azokan egiten den Zaldi Lehiaketan izena emateko epea zabalik:** egoitza Sakanan duten abeltzaintzako

ustiategiak bakarrik aurkeztu daitezke, ustiategi bakoitzak gutxienez 2 abere izan ditzake eta gehienez ere 5. Izena emateko epea irailaren 23an amaitzen da. Dokumentazioa eta izen emateko orria [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) helbidera bidali.

**Uharte Arakilgo Sanmigeletako play back txapelketako izen ematea:** irailaren 30ean, ostiralarekin, 20:00etan, play back lehiaketa jokatu da udal txeko plazan. Izen ematea egunean bertan egin behar da, 19:00etatik 19:30era. Abestia izena ematean aurkeztu behar da da USB memoria batean. Kantua mp3 formatua izan beharko du. Udalak eskatu du aurkezten diren USB memorietan abestia besterik ez egotea.

**Bakaikuko Udalak irailaren 24an auzolanera deitu ditu herritarrik:** Izena emateko udalaren WhatsApp edo Telegram bidez (622 268 161), udal txerara hots eginez (948 562 509), udal txetik pasaz, posta elektronikoki bidez [udala@bakaiku.eus](mailto:udala@bakaiku.eus) edota [www.bakaiku.eus](http://www.bakaiku.eus) webgunearen bidez.

**Gazteen Jaibuserako baime-na:** Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago, auto istripuko sahiesteko. Lehen bidaiak maiatzaren 7an egingen ditu Iturmendin eta Altsasun festa baita. Jakinik, 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egingen da eta Jaibusera igotzeko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutorek egin beharko dute beraien eremuko Oinarriko Gizarte Zerbitzuan, adingabearren argazki bat eraman ez eta inprimaki bat betez. Irurtzango OGZ udal txeko lehen solairuan dago, tfnoa 948 600 694, Etzarrri Aranazko Kultur etxeko bigarren solairuan, tfnoa 948 460 752 eta Altsasukoa Garbitoki egoitzako azken solairuan, tfnoa 948 467 662.

**Aralarko San Migel Santutegiko beharrak ikusita:** erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzen dutenentzat, eta bertan harre-lakua, kontrolgunea, denda eta komunak, baita interpretazio-zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

**Konposta eskuragai:** Sakana Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonor har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daitezke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

Eta ni ez nduzue zorionduko?



948 564 275  
ZORION@GUAIXE.EUS

ESKELA



## Juantxo Arregui Bengoetxea



Kontatutako istorioekin eta barre eginarazten zenigunarekin gelditzen gara.

Bidai on lagun!!!

Clinkerreko familia

ESKELA



## Juantxo Arregi Bengoetxea

Zure iribarreak gure bihotzetan beti

Zure lagunak

ESKELA

## Juantxo Arregui Bengoetxea



*Bizitza istant bat dela esaten zenuen. Azkarregi pasa zaigu.*

Zure bizipoza, zure umorea, zure ontasuna, elkarrekin egindako barreak...gugan geldituko dira betiko.

1966-1967ko zure kintoak



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €  
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.


► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

### EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 16




Larunbata, 17



Igandea, 18



Astelehena, 19



### JAIOTZAK

- **Lier Urkia Castillo**, irailaren 9an Etxarri Aranatzan

### EZKONTZAK

- **Eloy Corchero Martinez de Gereñu eta Nerea Luis Soto**, irailaren 10ean Lakuntzan

### HERIOTZAK

- **Maria Isabel Gonzalez Perkaz**, uztailaren 31n Ziordian
- **Juantxo Arregi Bengoetxea**, irailaren 8an Olaztin
- **Mari Carmen Martincorena Roman**, irailaren 12an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGUÁ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## “Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

## Amorru berdea

"Azken bolada honetan, teoria bat daukat Hulki buruz. Ez diot inori kontatu, benetan ikaritzen nauelako. Beti pentsatu izan dugu Hulk Bruce Bannerrek txikitari izandako traumen manifestazioa dela. Bannerren itzala, haren amorru bortitza, haserrea. Baina... zer gertatuko litzateke Hulk halakorik ez balitz? Hulk gu Bruce Bannerrengandik babesteko existitzen bada?"

Esaldi zirraragarri hauekin hasten da Hulk komikietan Marvelek argitaratu duen azken saga: *Gerrako bandera!!!* Aurten Bruce Bannerrek 60 urte beteko ditu komikien munduan lehen aldiz agertu zenetik. Bere barnean munstro bat ezkutatu duen zientzialari jakintsua. Dr. Jekyll eta Mr. Hyde moderno bat. Saga berri honek Bruce Banner eta Hulken harreman bereziari buelta ematen dio: (spoiler txiki bat) Bruce Bannerrek Hulken gorputzaren kontrola hartu du. Hauek, hala ere, ez dira berri onak: Bannerrek Hulken gorputza espaziontzi bat balitz bezala pilotatzen du eta gasolina Hulken amorrua da! Hulken kontzientzia giltzapean dauka, haren amesgaizto

handienen aurka borrokatzera behartzen du Hulken amorrua pizteko. Hortik aurrera borroka, odola eta multibertso bidaiak datoz. Istorio hau nola bukatzen den, zuen kabuz jakin beharko duzue...

Komiki egarriz utzi bazaitzuten nire Hulk saga kuttunena irakurtzea gomendatzen dizuet: *Planeta Hulk*: 2006an argitaratu zen. *Civil War* famatua gertatzen ari zen. Amerika Kapitanairen film famatua saga honetan oinarritu zen, baina komikietan ezberdin gertatu ziren gauzak. Heroiak bi taldetan banatuta ziren borrokatzeko, baina biak arazo berdina zuten: Hulkek hautatuko lukeen taldeak automatikoki irabazi egingo lukeela, Hulk boteretsuegia baita inork aurre egiteko. Konponbidea? Hulk espaziora bota eta beste galaxia urrun batean baztertu. Orain Hulk ahula da, baina inoiz baino haserreago dago eta mendekua hartu nahi du baztertu zuten heroien aurka.

Hulk nik bezain beste gustuko baduzue, ez zarete irakurtzeaz damutuko!!!

# Doluaren artelanak

José Luis Cerdón Cuesta argazkilariaren eta Nerea Zubikoa idazlearen 'Nueve' erakusketa mustu dute Irurtzango Pikuxar euskal txokoan. Galera baten aurrean bizi behar den prozesuari buruz hitz egiten du

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

Nerea Zubikoa eta José Luis Cerdón Cuestak "aspaldi" elkar ezagutzen dute. Besteak beste, Zubikoa idazlea da eta 2019an, pandemiaren aurretik, New Yorkera egindako bidaia baten ondoren poemak idazten hasi zen. Cerdón argazkilaria eta bideogilea da. Biek "aspaldi" elkar ezagutzen dute, "17 urte genituenetik, duela 30 urte inguru", eta Zubikoari iruditu zitzaion "oso polita" izan zitekeela bi diziplinak proiektu batean elkartzea, "nire artea eta bere artea". Ondorioa *Nueve* fotopoema erakusketa da. Erakusketa urriaren 9ra arte Pikuxar tabernan ikusgai egonen da, eta irailaren 22an, 18:30ean, egileekin topaketa izanen da; bisita gidatu bat.

Dolua da erakusketaren gai nagusia. Dolu prozesuak dituen bederatzi egoeratik ibilbidea egiten du. Zubikoa: "Lantzeko gai oso garrantzitsu bat iruditzen zait. Guztiok pasatu izan ditugu doluak, eta gelditzen zaizkigunak". Dolua ez da bakarrik heriotza batengatik, bikote edo lagun harreman bat amaitzen denean, lan batean amaitzen denean, heriotza baten aurrean eta abar sufritzen da dolua, poetak esan duenez. "Dolua beti agertuko da, eta nahiko gai tabua da". Prozesuaren ikuspuntu "goxoa" eman nahi izan diote, "eta jende guztia sentitu gaitezke identifikatuz".

**Prozesua**

Guztira, urte bat baino gehiago egon dira erakusketa lantzen, Cerdónek azaldu bezala. Arte lanak sortzeko orduan, prozesu "mistoa" izan da: "Alde batetik, Nereak bazituen zenbait

poema idatzita eta horren gainean nik argazkiak egin ditut, eta, bestetik, nik banituen zenbait argazki eta Nereak horien poemak egin ditu. Elkarbanatu eta osatu dugu elkar". Izenburuak dioen bezala, bederatzi argazki eta poemek osatzen dute erakusketa: *Vacío, Pedazos, Sin retorno, Perdida, Waiting time, Sarerik gabe, Induria, Casa eta Plenitud*.

Erakusketan Cerdónek egindako irudia eta Zubikoa idatzitako poema ondoan agertzen dira. Poemak gaztelaniaz idatzi zituen eta euskarara eta ingelerara itzuli dituzte ere. Proiektuaren webgunea sortu dute eta bertan irudiak ikusi eta testuak idatzi ez ezik, poemak hiru hizkuntzetan entzuteko aukera dago ere. Liburuxka bat sortu dute eta erakusketan saltzen dute. "Erakusketaren izaerarekin jarraituz, proiektu solidarioa izatea nahi genuen". Lortutako irabaziekin proiektu autofinantzatu eta proiektu solidarioendako bideratuko dituzte, besteak beste, orain, animalien babeslekuetara bideratuko dituzte lortutako irabazien zati bat.

**'NUEVE' FOTOPOEMA ERAKUSKETA URRIAREN 9RA ARTE PIKUXAR EUSKAL TXOKOAN IZANEN DA**

**IRAILAREN 22AN, OSTEGUNA, 18:30EAN, EGILEEKIN TOPAKETA ETA BISITA GIDATUA EGINEN DUTE**

"Elkartek lagundu nahi ditugu. Babesleku boluntarioa naiz, eta animaliek dolu prozesutik pasatzen dira ere. Abandonatuak izan dira, eta errehabilitazioa oso zaila izaten da, prozesu oso luzea izaten da". Proiektuan erakusten duten prozesua, hain zuzen. "Denbora asko behar duten gizakian berriz konfiantza izateko". Erakusketako irudiak eros daitezke ere, eta pixkanaka hobetu nahi duten erakusketa bat da ere: "Webgunea elikatu nahi dugu, jendearen iritziekin; orain bakarrik bi argazki dauka xafra metalikoetan inprimatuta eta denborarekin denak horrela egotea nahi dugu...". Bizirik dagoen proiektu eta erakusketa bat da. Ibiltaria izateko eta hainbat tokitan erakusteko sortu zuten ere.

**Iluntasunetik**

Erakusketan dolu prozesutik ibilbidea egiten dute. Horregatik, lehenengo irudiak ilunagoak direla azaldu dute, eta, pixkanaka, prozesuan gertatzen den bezala, argitasuna agertzen hasten da. "Lehenengo argazkia muntaia bat da; baso bat agertzen da eta erdian emakumezko baten silueta agertzen da. Desarma irudikatzen du, dolu bat sufritzen ari denean sentitzen den ezereza, galduta dagoela", azaldu du Cerdónek.

Maiatzean mustu zuten erakusketa Iruñeko liburutegia batean, eta ondoren Zubiriko kultur etxera eraman zuten. Bertan Donejakue bidea egiten ari zen psikologo batek irudiak ikusi eta poemak irakurri zituen, eta erakusketa ikusi ondoren esan zuen lehenengo irudi hark bereziki, baina erakusketak orokorrean, oso ongi erakusten

Gurekin harremanetan jartzeko

618 882 675  
GUAIXE





Jose Luis Cordón Cuesta eta Nerea Zubikoa 'Nueve' erakusketaren egileak. JOSE LUIS CORDÓN



Erakusketaren irudietako bat Pikuxarren. JOSÉ LUIS CORDÓN CUESTA

zuela doluaren prozesua. "Sentitzen dena oso ongi erakusten zuela esan zigun, baita momentu horretan ez zarela kontzientepasatzen ari zarenaz, eta profesional baten laguntza behar dela".

Bigarren irudian abandonatutako eta kalamastratuko erai-kin bat agertzen da, "pertsonak barrutik sentitzen duena era-

kusten du", baina kasu honetan argi pixka bat agertzen da, urrunean. Irudiak eta testuak

**"DOLUA LANTZEKO  
GAI GARRANTZITSU  
BAT IRUDITZEN ZAIT;  
GUZTIOK PASA IZAN  
DITUGU"**

metaforak dira, eta ondo osatzen dira. Esaterako, hurrengo irudian Zubikoa hilerri batean agertzen da, gurutze baten ondoan: "Metafora bat da, dolua eta mina lurperatzen ari da, eta behin lurperatzen duela aurrera egin dezake". Doluaren prozesuan iluntasuna dagoela, urduritasuna, hutsunea sentitzen dela eta ez dela horizonte-

rik ikusten azaldu du Zubikoak, "eta iluntasun horretan gelditu nahi den arren, pixkanaka ar-

**BEDERATZI IRUDI ETA  
POEMEN BIDEZ  
DOLUAREN PROZESUA  
AZALERATZEN DU  
ERAKUSKETAK**

gitasuna ikusten du". Hortaz, dolu prozesuan dagoen pertsona behin abandonua, dolua, hutsunea eta bakardadea onartuta, "huts" hori betetzeko argirantz eta ongizaterantz joaten hasten dela azaldu du idazleak.

Zubikoa zenbait argazkitako protagonista da: ardo kopa batekin agertzen da batean eta Baztango Xorroxin ur jautsian beste batean. Naturak ere garrantzia handia du argazkietan, eta Nafarroa erakusketaren beste protagonista bat da: "Dena oso bertakoa izatea nahi genuen, Nafarroakoak gara eta Nafarroan egin nahi genuen proiektua". Esaterako, Deierriko ehun urte-tik gorako artea agertzen da, Ekaiko zerrategi zaharra edota Aribeko larre batean egindako argazkia. Irudi bakoitzaren behean argazkia non egin den jarri dute ere, toki horri balorea emanez. Erakusketa "landa" eremuetan zabaldu nahi dute, gehienbat; Zubikoa: "Herri batean bizi naiz eta iruditzen zait kultur arloko gauzak hiriburuan gelditzen direla. Gure helburua ere bada kultura herrietatik sustatzea".

"Aspaldi elkar ezagutzen duten bi pertsonen batasunetik sortutako zerbait sortzailea da", esan du argazkilaria. Erakusketaren helburua doluaren prozesua ikusaraztea da. "Erakusketa ikustera joaten den pertsonak ikus dezake doluaren zer fasetan egon daitekeen eta gutxiago gelditzen zaiola argia ikusteko, ongi egoteko". Zertxobait "nahasi" dagoen gizarte honetan "hobe" sentiara zi nahi dute irudien eta testuen bidez. Gainera, irudia eta hitzak jarri dizkiote "persona askok sufritzen duten" errealitate bati. Nahiz eta prozesu bakoitza desberdina izan, jendea islatuta sentitu daiteke.

#### Irurtzunen

*Nueve* fotopoema erakusketa urriaren 9ra arte egonen da Pikuxar euskal txokoko tabernan ikusgai. Erakusketa ongi ulertzeko ordena batean ikusi behar da, eta urriaren 22an, 18:30ean, Zubikoa eta Cordón Irurtzunen egonen dira egileekin topaketa bat egiteko. Bisita gidatu bat baino gehiago izanen da, artelan bakoitzaren nondik norakoak azalduko dituztelako, irudia non eta zergatik hartu den eta testuen hondora joanen dira ere.



Amaiur eta Xabier Bengoetxea Ijorra dantzariak Ziordiko Zortzikoan.

## "Dantza bat izateak ilusioa egiten digu"

Ziordiko Zortzikoa berreskuratu dute eta festetan dantzatu zuten Amaiur eta Xabier Bengoetxea Ijorra dantzari ziordiarrek, Etorkizuna dantza taldeko dantzariekin. Karlos Sanchezek eta Haize Berriak bandak egin dute doinua, eta Iñaki Agirrek dantza

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

### 1 Zer sentitu zenuten?

**Xabier:** Emozio handia. Gainera, Ziordia izanda eta plaza beteta zegoela eta jendea hunkituta ikustea... Oso hunkigarria izan zen.

**Amaiur:** Ilusio handia, eta oso hunkigarria izan zen. Zerbait berreskuratzea eta guk dantzatzea sekulako aukera da. Pozgarria. Ziordiarra izanda... Ziordin ere horrelako dantza bat egoteak, niri poz handia ematen dit. Horrelako dantza bat izatea ilusioa egiten dit.

### 2 Nola ikasi zenuten?

**X.:** Ziordiko pertsona batek ba omen zituen partitura batzuk, baina ez zegoen osorik. Orduan, horiek moldatu dituzte eta Haize Berriak bandarako prestatu zituen. Iñaki Agirre dantza taldeko irakasleari pasa zioten musika eta berak egin du dantza.

### 3 Erraza izan da?

**A.:** Bai. Azkenean, Altsasuko zortzikoak ere ezagutzen dugu eta pausuak, nahiz eta bakoitzak bere gauzak dituen, oso antzekoak dira. Dantza eskolan gabiltzanez, erraza egin zaigu.

### 4 Zer suposatzen du zortzikoak berreskuratzeak?

**X.:** Kulturalki poz handia. Gure herriko, Ziordiko, tradizioaren parte da, eta galdu izana tristea da.

**A.:** Galduta zegoen zerbait berreskuratzeak niri, behintzat, poz handia ematen dit.

### 5 Zergatik galdu zen?

**X.:** Ez dakit, baina agian frankismoaren garaian izan zen. Ziordin euskalkia zegoen ere, eta urte horietan galdu omen zen.

**A.:** Egia esan, ez dakit istorioa. Emakume batek duela hainbat urte dantzatu zuen; aurreko egunean dantzatu ondoren etorri zitzaidan eta uste dut 1979an berak dantzatu zuela esan zidan, baina geroztik berriz galdu zen.

### 6 Bazenekiten zortzikoak existitzen zela?

**X.:** Azken urteetan hasi zen entzuten herriko pertsona batek partiturak zituela eta dantzariak izanda geure buruari galdetzen genion ea zergatik

ez zen berreskuratzen. Beste herritan zortzikoak badaude, zergatik Ziordin ez? Udaleko kultur taldeak mugitu du berreskurapena.

### 7 Orain, zer? Noiz dantzatuko duzue zortzikoak?

**X.:** Ziordin aurkeztu genuen eta hemendik aurrera noiz dantzatu airean dago. Ez dakigu Santa Agedan kintoez dantzatuko duten edo inauterietan ere dantzatuko den. Inauterietako pertsonaiak ere duela gutxi berreskuratu ziren. Hitz egin beharko dugu, jendeak ikasia beharko duelako eta agian guk irakatsi behar diegu.

**A.:** Herriko jendeari erakutsiko diogu, eta mugitzen saiatuko gara. Ez dugu berriz galtzea nahi.

### 8 Herritarrek ikasteko interesa dute?

**X.:** Bai, nik uste baietz. Gainera, Altsasun, adibidez, zortzikoak duen garrantzia ikusita nik uste jendeak ikasi nahi duela, nahiz eta dantza egiten ez jakin. Herriko kulturaren parte da, eta jendeari gustatzen zaio.

### 9 Beste herrietako zortzikoekin alderatuz, zertan nabarmentzen da Ziordikoak?

**X.:** Altsasukoa eta Etxarrikoa ezagutzen ditut eta dantzari izanda gehiago begiratzen dituzu, eta Ziordikoak zortziko desberdinen nahasketa duela esan daiteke.

### 10 Zer moduzkoa izan zen harrera?

**X.:** Gu urduri geunden, baina oso harrera ona izan zuen. Denbora nahikotxo daramate horren inguruan hitz egiten, eta ikusmina sortu zen. Jende gaztea bazegoen, baina gehienbat jende heldua zegoen. Beraiek ez dute aukerarik izan dantzatzeko galduta zegoelako, eta penarekin ikusten dute. Horregatik inauterietan egin nahi dute, herri guztiak dantzatzeko.

**A.:** Nik ez nuen horrenbesteko erantzunik espero. Dantzaren ondoren jendea etorri zitzaigun eta oso hunkigarria izan zela esan zigun.

### 11 Berreskurapenaren inguruko hitzaldia egin zuten. Egon zinen?

**X.:** Oporretan geunden, eta ezin izan genuen egon.

ERAMAN  
ZURE PRODUKTUAK  
EDONORA

GUK BEHARREZKO DUZUN GUZTIA  
PRESTATUKO DIZUGU

EDALONTZIAK, POLTSAK, ONTZIAK, KUTXAK...  
ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



gure eskualdean  
**SAKANAN**  
KONTSUMITU!

619 821 436 - 948 564 275  
info@gkomunikazioa.eus - Foru plaza, 23-1, Altsasu